

# BULLYING



STEE-EILAS





# BULLYING

**Ikasleen artean  
beldurraraztea  
eta tratu txarra ematea**

José M<sup>a</sup> Avilés Martínez

Argitaratzailea: STEE-EILAS  
Diseinu - Maketazioa: Marra, S.L.  
Imprimategia: Lankopi, S.A.  
Lege Gordailua: BI - 180 - 03  
ISBN: 84/93/2081-3-2

# Edukia

Aurkezpena	5
<b>Sarrera</b>	7
<b>Bullyingari aurre egiteko urratsak</b>	11
1. Egoeraren analisia	13
2. Plangintza	13
3. Esku-hartzea	13
<b>Definizioa</b>	15
Sarrera	17
Zertaz ari gara?	17
Eragina gizartean eta eskolan	18
Definizioa	18
Bullyingaren ezaugarriak	18
Bullying motak	18
Subjektuak deskribatzeko	19
Bullyingaren ondorioak	20
Amaierakoa	23
<b>Egoeraren azterketa eta diagnostikoa</b>	25
0. Ikastetxearen egoeraren azterketa	27
1. Erabilpenerako argibide orokorrak gertakariaren ebaluaketa eta diagnostikoa egiteko	27
2. Tresna desberdinak	28
Aplikatzeko argibideak	30
Erantzun orria	31

Ikasleriarendako galdera orria	32
Irakasleentzako galdera-orria	34
Gurasoentzako galdera-orria	35
Nire bititza eskolan	36
<b>Plangintza</b>	37
1. Zein da abiapuntua?	39
2. Zer lortu nahi dugun	41
3. Nola gauzatuko dugu proiektua?	41
4. Gauzatu egingo dugu	43
5. Zein neurritaraino ari garen hori lortzen	43
<b>Esku-hartzea</b>	45
Bullyinga eta erasoa	47
Bullyinga eta elkarbizitzarako arazoak ikastetxeetan	48
Lehen maila	48
Bigarren maila	49
Hirugarren maila	50
Pikas-en metodoa	51
<b>Bibliografia</b>	55
Gaztelaniazko oinarrizko bibliografia	57
Ingelesezko oinarrizko bibliografia	57

## Aurkezpena

Mugimendu ekologistaren eraginez, gure ingurugiroa kutsatzen duten edo gure osasunerako kaltegarriak diren produktu edo iharduerak identifikatzen ikasi dugu. Era berean, Giza Eskubideen aldeko mugimenduek pertsonak eta beren duintasuna errespetatzearen garrantzia nabarmendu dute, eraso fisiko edo ahozkoa, errespetu falta, diskriminazioa edo jazarpena dakarten portaera guztiak onartezinak baitira gizarte zibilizatu batean.

Lan munduan, haurtzaroan zein nerabezaroan ohikoak diren portaera batzuek ere gaitzespen moral hori merezi dute. Lanean pertsona baten bizitza ifernu bihurtzea, ikastetxe guztietan ahulenen kontra etengabe jotzen zuen harroputza egotea, edota ia arlo guztietan ezberdina izateak ekartzen duen diskriminazioa ohiko egoerak dira eta askotan ikustezin bihurtzen zaizkigu.

Hala ere, portaera erasokor eta diskriminatzaile hauek oso ondorio larriak dituzte bai jasaten dituztenengan eta baita eragiten dituztenengan ere, eta are gehiago adin txikikoak direnean, ondorio horiek bizitza osoan nabaritzen baitira. José M<sup>a</sup> Avilésekin egindako lanak eta beste batzuenek itzaletik argira ekarri dituzte egoera hauek, prebenitzeko eta aurre egiteko beharra azpimarratu dutelarik.

José M<sup>a</sup> Avilés psikologoa eta eskola orientatzailea izateaz gain Gaztela eta Leongo STE sindikatuko Lan Osasun arloko arduraduna da. Denbora luze eta ahalegin handia jarri du ikasleen artean gertatzen diren

jazarpen egoerak (Bullying) aztertzen, aurten aurkeztutako doktorego tesia burutu arte.

Pasa den ikasturtean gure artean eman zituen hitzaldiek gaiarekiko interesa sortu zuten eta horrek bultzatu gaitu material hau ikastetxe eta interesa edo zerkusia duten kolektibo zein profesionalen eskura jartzera. Bertan arazoaren definizioa, eragileak eta ondorioak azaltzeaz gain, ikastetxearen diagnosis egiteko baliagarria den José M<sup>a</sup> Avilésekin prestatutako tresna (PRECONCIMEI izenekoa, ikasle, irakasle eta gurasoentzako galdetegiak dituen), ikastetxe mailako plangintza egiteko gida eta esku hartzeko modua ere aurkituko dituzue, Anatol Pikasekin sortutako metodoaren laburpena hain zuzen.

José M<sup>a</sup> Avilésekin egindako lana eskertzen dugu eta baita bere lan horren emaitzak bere lankideekin konpartitzeko izan duen joera ere, ikasleen artean gertatzen diren jazarpen egoerak denok ezagutu, antzeman eta prebenitzeko lanari ekin diezaiogun, helduen artean ere horrelako portaerak desagertarazteko baliagarria izango delakoan.

STEE-EILASeko Lan Osasun Arloa  
2002ko abenduak 10  
Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna





Sarrera





Esku artean duzun dokumentua eskola inguruetan *bullyingari* aurre egiteko tresnak eskaintzeko asmoz prestatu da.

Helburu zehatzak hauek dira:

### **Bullyingari buruz jakin behar duguna argitzea**

*Bullyinga* mundu osoko herrialde askotan gertatzen den arazoa da. *Bullyingaren* ezaugarriak argitzeko ekarpenak egin dituzten ikerketa asko burutu dira, eta beraiei esker gertaera hauek zeintzuk diren zehatz-mehatz azaldu ahal dugu. Hala ere, herrialde bakoitzeko kultura eta nortasunak ezaugarri bereziak ematen dizkio parekideen beldurrazteari.

### **Ikastetxearen egoera aztertzea**

Landu nahi dugun proiektua arrakastatsua izateko oinarritzko baldintza ikastetxean gertatzen ari dena abiapuntua izatea da, ikastetxearen berezitasun guztiak kontutan hartuta. Beste gertakari askorekin gertatzen den bezala, *bullyingak* ezaugarri bereziak ditu ikastetxe bakoitzean. Beraz, *bullyinga* desagertarazi nahi badugu ezaugarri berezi horiek ezagutu behar ditugu.

### **Sentsibilitateak eta kontzientziak piztea**

*Bullyingari* aurre egiteko ikerketa gehien egin dituenetarikoa irakasle norvegiarra da, Dan

Olweus, 1982.ean Norvegiako iparraldean bere buruaz beste egin zuten hiru ikasleren kasua ikertzen hasi zena. Gaur egun Britainia Handian onartuta dago urtero hamasei neska-mutilak hiltzen dira *bullyingarekin* zerikusi zuzena edo zeharkakoa duten arrazoiengatik. Espainiar estatuan ez dago horri buruzko datu ofizialik. Gizarte osoa baina bereziki eskola komunitatea sentsibilizatu eta kontzientziatu behar da, hau guztia onartezina dela eta horrelakorik ez gertatzeko behar diren bitartekoak jarri behar direla kontura gaitzen.

### **Bullyingaren eragina neurtzeko tresnak eskaintzea**

Elkarrizketak, galdera sortak, azterketa-zerrendak, biktimei komunikatzeko aukera ematen dien edozein tresna onuragarria izango da, erasotzaileen lagunik onena den "isiltasunaren legea" apurten baitu. Gainera, tresna hauek esku-hartzerako baliagarriak diren datuak ere emango dizkigute.

### **Ikastetxeetan *bullyingaren* aurkako plan baten lanke-tarako prozesuei ekiteko orientabideak ematea**

Ikastetxeetan *bullyingari* aurre egiteko eskola komunitateko kide guztien ahalegina bateratzea ezinbestekoa da. Tratu txarrei aurre egiteak ekin-tza plana gauzatzeko ideia argiak eta amankomunak izatea eskatzen du. Dokumentu honek ideiak eta erabakiak eztabaidatzeko eta adosteko galdera nagusiak aurkeztu nahi ditu.

### **Esku-hartze maila desberdinak eta estrategia erabilienak aztertzea**

Esku-hartzerako erabil daitezkeen estrategia sorta eskaini nahi dugu. Horietariko asko ohikoak dira dagoeneko gure ikastetxeetan. Hemen aipatzen dena egin daitezkeen guztia ez denez, amaie-

ran agertzen den bibliografiaren bidez, estrategia horietan sakontzea eta beste batzuk aztertzea posible da. Dokumentu honetan eta adibide bezala, Pikas-en metodoan sakontzen dugu, *bullyinga* nahiko errotuta dagoenean desagertarazteko estrategia egokia delakoan.

# Bullyingari aurre egiteko urratsak





Eskola inguruetan ematen den maila bereko pertsonen arteko tratu txarrei hurbiltzeak informazio, prestakuntza eta plangintza prozesua eskatzen du. Horixe da hemen planteatu nahi duguna, eskema moduan bada ere, ekin-tza errazteko asmoz.

Edozein gertaera aztertu nahi dugunean, definitzea, mugak jartzea eta oinarrizko ezaugarriak finkatzea lehenengo urratsa da. Definizioa izeneko atalaren helburua *bullyinga* aipatzen dugunean zertaz ari garen zehaztea da. Gizartea zein hezkuntzari begira dakarrena eta parte hartzaileen profilak ere (erasotzailea, biktima eta ikusleak) azaltzen dira. Azkenik, egoera hauen jatorriak zein ondorioak bilatzen dira, hala onerako zein txarrerako eragina izan dezaketean egoerak aztertzeke.

Kontzeptua definitu ondoren ikastetxeetan *bullyingari* aurre egiteko planaren lanketarako urratsak finkatu nahi ditugu.

## 1. Egoeraren analisisa

Atal honetan portaera onartezin hau desagertarazteko lanari ekingo dion eskola komunitate osoak ikastetxearen errealitatea aztertzearen garrantzia azpimarratzen da. Segidan, diagnostikoa egiteko tresna batzuk proposatzen ditugu, gure ikastetxean geratzen ari denari

buruzko informazio kualitatibo zein kuantitatiboa edukitzeko, esku-hartzerako oinarrizko informazioa baita.

## 2. Plangintza

Atal honetan ikastetxe batean *bullyingari* aurre egiteko plana lantzeko kontutan hartu behar diren ideia edo galdera nagusiak planteatzen dira.

## 3. Esku-hartzea

*Bullyinga* eta beste portaera erasokor batzuk edo elkarbizitarako kaltegarriak diren beste portaerak desberdintzeko informazioa ematen da atal honetan. Segidan esku-hartzeko estrategia sorta eskaintzen da, egoeraren arabera, lehen, bigarren edo hirugarren mailako esku-hartzeari ekiteko. Azkenik *bullyinga* nahiko errotuta dagoenean erabiltzeko metodo bat azaltzen da, Pikasen edo ezagutza partekatuko metodoa.

Dokumentu honetan egiten diren ekarpenak oinarrizkoak diren heinean, gaiari hurbilketa egiteko baliagarriak izateko asmoz eginak, azken atalak gaztelaniaz zein ingelesezko bibliografiak sakontzeko aukera bikaina eskaintzen du.





# Definizioa





## Sarrera

Normalean, eskola inguruetan izaten diren indarkeria egoerez berba egiterakoan, gehienetan burura etortzen dira lapurretak, borrokak edo ikastetxeetako materiala eta instalazioak apurtzea. Halere, indarkeriazko egoerek barne hartzen dituzte bestelako egoera batzuk, nahiz eta beti esplizitu bihurtu ez, haien gainean berba egitea da, gurata heltzen zaie gizarte giroa eta ikastetxe elkarbizitza konpon ditzaketen gatazka egoera moduan. Horixe jazotzen da *bullying* deritzonarekin, termino ingeles horrek gutxi gorabehera parekideen beldurraraztea izendatzen du-eta (Fernandez, 1996). *Bullyinga* jazarpenaren azpi-tipoa litzateke.

Berdinen arteko jazarpen dinamikak ikertzen hasi ziren ipar Europako herrietan 1973. urtean Olweus-en lanak zira bitarte, horrelakoen ondorioz Norvegiako Hezkuntza Ministerioak horrelako gertaerak aztertu eta prebenitzeko ekimen bat abiarazi zuela. Suedian eta beste herri batzuetan, mila bederatzehun eta hirurogeigarren urteik aurrera nazio ikerlanak egiten hasi ziren bitarteko irakaskuntzetako ikasleen substantzi kontsumoaz eta indarkeri egoeren gainean. Halaber, Estatu Batuetan eta Ingalaterran ikerketek aurrera egiten dute eskola eremuetak jazarpen jokabideak direla-eta, esaterako Estatu Batuetan biktima bihurtzeko delituen gainean paraturiko Ikerketa nazionala. Lehen eta bigarren hezkuntzetako eskola indarkeriaren gaineko ikerketa nazionalak egin izan dituzte Holandan (Mooij, 1994), Eskozian (Mellor, 1990), Irlandan (O'Moore, Kirkham eta Smith, 1996), Italian, aldeaz, (Fonzi *et alt.*, 1999), Espainian (Herriaren Defendatzailea, 1999), Suitzan (Alsaker eta Brunner, 1999), Japonian (Mombuso, 1994), Australian (Rigby, 1997). Beste europar herri batzuetan bestelako ikerketa batzuei ekiten diete, baina beti ez dute *bullyinga* soilik aztertzen eta ez dira nazionalak izaten. Horrela

gertatu izan da Alemanian, *bullyingaren* gaineko ikerketek eremutat hartzen baitzuten eskualderen bat edo, gehienik ere, länderra (Estatua). Frantzian joera nabarmena dago jazarpen jokabideetat jotzeko zigor kodean xedaturikoak, ondorioz ikerketek batez ere delituzko jokabideak hartzen dituztela. Espainian ez zen ikerlan nazionalik egin Herriaren Defendatzailearena (1999) agertu arte eta arazoa ordura arte landua zen tokian tokiko ikerketetan (Viera, Fernandez eta Quevedo, 1989; Cerezo, 1992; Ortega, 1994 eta Aviles, 2002) edo autonomikoetan (Ortega, 1998).

Halaber, hainbat herritako administrazio publikoak gradu desberdinetan hasi dira kezkatu agertzen indarkeriaz eta, bereziki, *bullyingaz*, gaur egun prebentzio eta interbentzio programen garapen maila ezberdinak dituztela.

## Zertaz ari gara?

*Bullyingaz* hitz egiterakoan zeren gainean dihardugu eta itxuraz zergatikorik gabe ikastetxera joateari uko egiten dion nerabeaz berba egiten dugu. Gaixotasun planta guztiak egingo ditu gurasoen aurrean eskolaratze eza zurrizko, edozer *bullyaren* biktima dela edo lagun talde batek gorriak pasarazten dizkiola aitortu baino lehen.

Gelan nagusi den harroputz taldeak leporatu dion jokabidea bizkarrean hartuta bizi den nerabearen egoera dugu, isekak, lotsa eta barregarri geratzea jasan behar dituela ikaskideen aurrean egoera modu tazituan onartzen dute eta.

Hizpide ditugu ikaskide talde baten txantaje ekonomikoak jasaten dituzten nerabeak, horrela jokatzera behartuta daude-eta kalte handiagorik hartu nahi ezean.

*Bullying*az ere mintzo gara halako egoera batean batzuek modu tazituan elkar hartzen badute lagun bat osotaro eta modu larrian bakandu eta isolatzeko. Beste horrenbestekotzat jotzen ditugu honelako jokamoldeak: etengabe iraintzea, behin eta berriro indar fisikoa erabiltzea, lan behartuak, ikaskide batek edo batzuek beste ikaskide bat nabarmen gaitzestea, honek bere baliabideekin defendatzerik ez duela.

## Eragina gizartean eta eskolan

Ezin zehaztukoa da zenbat ikaslek eta irakaslek jasaten duten gaur egun jazarpena gure ikastetxeetan. Egia esan, hedabideek ikastetxeetan izandako indarkeriaren albiste ematen dutenean, badirudi ezen gure gizartean eta eskolan jazarpena egunetik egunera handituz doan zirrara dagoela, halere, eskolan gauzaturiko ikerketa sakonagoen datuei estu bagagozkie, bestelako emaitzak izango ditugu. Hedabideetan gaiaren tratamenduak bere onetik ateratzen du problema, nahiz eta eskola indarkeriaren gaineko datuak egia izan ñabarduretan, ez baitira zuzenak orokortzerakoan.

Espainiar ikerketetan lorturiko emaitzak batez bestekoaren ingurukoak dira eta sartaldeko beste herri batzuetakoenen beharokoak. Ikasleen %30-40k adierazi du ezen noiz edo noiz –“batzuetan”, “inoiz edo behin”– jazarpen egoeretan nahastuta egon dela, nahiz erasotzaile moduan, nahiz biktima modura. Gure ikerketan (Avilés, 2002) jasotakoaren arabera, hiru hilekoan jazarpen egoeretan ikasleak maiz izan dira biktima (%5,7) eta sarriago erasotzaile (%5,9).

Guztiarekin ere, nahiz eta, zoritxarrez, eginiko ikerketak beti ez diren mugatu guztiz alderagarri diren inguru, lagin, metodologia, neurgarri eta eremuetara, inork ez du zalantza egiten indarkeriak eta, zehazkiago, beldurrarazteak eta biktima bihurtzeak egun gizartean eta eskolan duten garrantziaren handiaz. Sarri-sarriko arazoa da gure ikastetxeetan eta ez dugu gutxietsi behar.

## Definizioa

Komeni-komenigarria da zehaztea zer esan gura dugun *bullying*a hizpidera ekartzekoan. Bere horretan, ingelesez, *bully* berbak harroputz edo ahobero esan gura du; alde horretatik, horrelako jokabideek zer ikustekoa dute jokabide hori jasan behar duen laguna beldurraraztearekin, tiranizatzearekin, isolatzearekin, mehatxatzearekin, iraintzearekin.

Bestalde, nahiz eta *bullying* terminoak, berez, gizartean baztertua indarkeri harremantzat hartu ez, mugakizun hori gorabehera, gertaera definitzeko oinarritzko ezaugarriak ematen ditu, eta, Olweus-ek 1978.ean emandako lehenengo definizioa berregin ostean, termino horrexek izaten du erabilera adostua arazoari ekiten dion literatura zientifikoan.

Terminoaren **definizio**rik onartuenari gagozkiola, hemen beldurraraztera ondoen zedarrizten duena azalduko dugu:

“Ikasle bat erasopean dago edo biktima bihurtzen da etengabe eta denbora tarte batean beste ikasle baten edo batzuen ekintza negatiboak jasan behar izaten dituzenean” (Olweus, 1998, 25. or.).

## Bullyingaren ezaugarriak

*Bullying*aren ezaugarri sorta bat da, gaiaz arduratu diren ikerketek behin eta berriro adierazia.

- Harroputz batek edo batzuek erasoriko biktima (babesgabe) bat izatea.
- **Botere ezberdintasuna** (“indar desoreka”) izatea indartsuenaren eta ahularen artean. Orekarik ez izatea defentsa bideen aldetik, ezta oreka fisiko, sozial edo psikologikorik ere. Biktima egoera desorekatuan eta defentsa gabeziatzekoan izatea.
- Eraso ekintza **behin eta berriro** gertatzea. Denbora tarte luze batean eta era errepikarian gertatzea. Olweusek dio “denboran errepikatua” (1998, 25. or.). Erasoak mina dakar gertatzen denean ez ezik, gero ere bai, modu etengabean, biktima etsita baitago berriro ere eraso egingo diotela.

Beldurrarazte saioaren helburua ikasle bakarra izaten da, nahiz eta batzuetan bat baino gehiago izan daitekeen, baina gutxiagotan gertatzen da. Bakarka edo talde beldurraraz dezakete laguna, baina beti lagun jakin bat izaten da. Inoiz ez dute talde osorik beldurrarazten.

## Bullying motak

Azter ditzakegun jazarpen mota nagusiak honela sailka ditzakegu:

**Fisikoa:** bultzatzea, ostikoak, ukabildak, gauzak erabiltzea erasotzea. Jazarpen mota hori areago jazotzen da lehen hezkuntzan bigarrean baino.

**Hitzezkota:** Egile askok mota hau sarritakoentzat dute bere ikerketetan. Normalean irain eta ezizenetan gauzatu ohi da. Sarritan gertatzen dira jende aurreko arbuioak edo etengabe nabarmentzea edo agerraraztea akats fisiko edo ekintzaren bat. Aspaldion telefonoa ere bihurtzen ari da jazarpen mota horretarako bide.

**Psikologikoa:** horrelako ekintzek banakoaren autoestimazioa ahuldu gura dute eta segurtasunik eza eta beldurra gehitu. Psikologi osagaia jazarpen mota guztietan agertzen da.

**Soziala:** gizabanakoa bakandu nahi dute taldearekiko estatus txar batean eta, noiz edo noiz, beste lagun batzuk ere partaide bihurtu ekintza horretan. Taldekideak begira eta ezer egin barik geratzen direla lortu ohi da. Horrelako ekintzei zeharreko *bullying*a irizten zaio.

Halere, geure ikuspegitik uste dugu jazarpenak izan dezakeen agerpenen sorta zabalak lehen zerrendaturiko

ezaugarri bat baino gehiago izaten duela. Haietariko bat, jazarpen psikologikoaren osagaia, guztietan egongo litzateke gorde-gordean zelan edo hala.

## Subjektuak deskribatzeko

Segituan aipatuko ditugu *bullyingean* esku hartzen dutenen lagun esanguratsuenen profil psikosozialak. Horretarako abiapuntu hartuko ditugu eginiko ikerketa nagusien ondorioak eta eremuen arabera bereiztuko ditugu.

### Erasotzailea

Hainbat ikerketek (Olweus, 1998; Ortega, 1994) erasotzaile nagusizat batez ere gizonezkoa seinatzen dute. Beste ikerketa batzuek (Smith, 1994) adierazi dutenez, neskak protagonista izaten dira jazarpenetan psikologi osagaiak modu sotil eta erdi gordean erabiltzen direnean.

### Nortasuna

Olweus-ek (1998) erakutsi legez, erasotzailea nortasun oldartsu eta suminkorra izaten du eta gabezien jabe da nahiak adierazi eta negoziatzeko gizarte trebetasunetan. Biktimaren sentipenenganako enpatia falta eta erru sentimendurik eza leporatzen dizkio. Nabarmen erakusten du ira kontrolatzeko gaitasunik eza eta eraso ezaugarri ugariak; ondorioz besteenganako harremanak interpretatzen ditu bere aurkako gatazka eta eraso jatorri moduan. Egile norvegiar horren aburuz, oldarkorrek eta beregainak izango liriteke, autoestimazio maila txikia agertu barik.

Oso borrokalaria izango liriteke kideenganako eta nagusienganako, indarkeriarako joera handiagoren jabe. Odol bizikoak liriteke, besteak nahitaez menperatu beharrekoak.

### Ezaugarri fisikoak

*Bullyak*, normalean, gizonezkoak dira eta indar fisiko handigoaren jabeak. Gorputz indar handi hori ikaskideen aurrean agertzen dute oro har eta, bereziki, biktimen aurrean.

### Esparru soziala

G<sup>a</sup> Orza-k (1995) dioen legez, erreakzioetan doitze arazoa izaten dute, gizarte elkarreraginetan oso zama erasokorren jabe direla. Horiek horrela, normalean mutil horiek nagusiago izaten dira ikastaldeetan, maila errepikatu dutelako. Beraz, eskolan ez daude hain integraturik (Cerezo, 1997). Ez dira ondo egokiturikoak bezain ospetsuak, baina bai biktimak baino gehiago. Gurasoekin ere harreman txikiagoa dute. Ez dute famili lotura sendorik izaten eta ez zaie asko interesatzen eskola.

### Tipologia

Olweusek (1998) erasotzaile profil bi definitzen ditu: **aktiboa**, berberak jotzen du biktima, zuzeneko harremanak ezarrita, eta **soziala/zeharrekoa**, jarraitzaileen jokabidea batzuetan ezkutuan gobernatzea lortzen du,

horiek behartzen dituela errugabeei eraso egitera eta pertsekuzioa egitera. Prototipo horiezaz gain, bada beste kolektibo bat, parte hartu arren, erasoan ekintzarik egiten ez duena, **erasotzaile pasiboak** (erasotzailearen jarraitzaileak edo aldekoak).

### Biktima

Mooij-ek (1997) adierazi legez, sarritan biktimarengan biltzen dira zuzenean, maiz eta behin eta berriro beldurturik sentitzeko maila handiak, baita lagunek zeharrez kikildu eta baztertzekoak (batez ere neskei gagozkiela). Normalean, erraz identifikatzen dituzte biktima moduan eta ez dira halako estimatuak.

Biktimaren rola berdin gertatzen da bi sexuetan, nahiz eta ikerketa askok adierazi askoz ere mutil gehiago dagoela inplikaturik (Herriaren Defendatzailea, 1999) edo antzeko kopurua (Ortega, 1990 eta 1992); Mellor, 1990; Fonzi *et alt.* 1999), salbu eta Japonian egindako ikerketetan, horietan egiaztatzen baita batez ere nesken aurka doazela (Mombuso, 1994), edo biktimen artean neskak gehiago direla (Taki, 1992). Halere, Olweusen arabera (1998), nesken arteko beldur jazarpena askoz ere gutxiago ikertu dute.

### Nortasuna

Biktimak agertzen dira ahul, segurtasunik gabeko, zuhur, sentibera, lasai eta lotsati, autoestimazio maila txikien jabe (Farrington, 1993). Batez ere balioetsi da jazarpenaren biktimen portaeran autoestimazioa eta kideen testuinguru efektuekiko erlazioa (Lindstrom, 1997), konstantetzat jotzen dela jazarpena jasandakoen artean. Oso iritzi negatibo izaten dute beren buruaz eta egoeraz.

### Famili esparrua

Famili esparruan, biktimak luzaroago egoten dira etxean. Diotenez, gurasoek lar babestearen ondorioz haurrak menpeko eta etxezulo bihurtzen dira eta horietan dira biktimen ezaugarriak (Olweus, 1993). Egile horren iritziz, larregi babesteko joera horiek batera izan daitezke bai jazarpenaren kausa, bai horren ondorioa. Biktimak, orokorrean, harreman kontaktu estuagoa eta harreman positiboagoa izaten ditu amarekin.

### Ezaugarri fisikoak

Olweusen arabera biktimak ez dira hain indartsuak, batez ere mutilak; ez dira erasokorrek ezta oldarkorrek ere, larritasun eta segurtasunik ez handiak agertzen dituzte. Egile honek dioenez, ezaugarri ageriko batzuk bide dira, eta horietan aukeratzen erasotzaileak biktimari eraso egiterakoan, biktimak beste ikasleetatik bereizten dituzte eta. Besteak beste, betaurrekoak, azalaren edo ilearen kolorea eta hizketa akatsak izango liriteke. Halere, itxura denez, kanpoko desbideratze horiek ezin dira jo jazarpenaren edo biktimaren estatusaren zuzeneko eragiletzat. Biktima aukeratutakoan, erasotzaileak berak nabarmentzen bide ditu bereizgarri horiek.

## Tipologia

Bi prototipoak onartzen dira:

Aktiboa edo probokatzailea, ezaugarri bereziak erakusten ditu, ereduan larridura eta eraso erantzuna bateratuta, erasotzaileak aitzakiatzat darabilela bere jokabidea zuzitzeko. Biktima probokatzaileak erasotzaile moduan ere jokatu du, erasokor eta desafiatazailer agertzen da.

Horrelako ikasleek kontzentrazio arazoak izaten dituzte eta ingurukoekin tentsioz eta suminduta jokatu dute. Batzuetan hiperaktibotzat jotzen dituzte eta, normalean, erreakzio negatiboak sortzen dituzte kide gehienetan.

Biktima pasiboa da arruntena. Pertsona segurtasunik gabeak dira, gutxi nabaritzen direnak, erasotzailearen oldarra isilik sufritzen dute.

Beren jokabidea segurtasun gabeziatzen jotzen du erasotzaileak eta mesprezua sortzen dio, erasoari eta irainari erantzuten ez dietenez gero. Olweusek (1998) larridura eta erreakzio otzana (mutiletan) elkartzten dituen eredu hori lotzen dio ezaugarri duten gorputz ahuleziari.

## Harreman soziala

Biktimak pertsona gaitzetsiak izan ohi dira, nekez izaten dute benetako lagunak ikasgelan eta neketsu gertatzen zaie lagunak egitea. Datu soziometrikoei erreparatu gero, ez dira batere itzaltsuak gelan. Haur bakartiak dira, lagun eta irakasleenganako babes sare sozial ahulak dituzte. Halere, erasotzaileek baino jarrera positiboagoa dute irakasleekiko (Olweus, 1998).

## Ikusleak

Olweusek (1993) kideek biktimei ez laguntzea interpretatu du erasotzaileek besteengan duten eraginaren ondorio gisa, sarri bai sarri jazotzen dela eta horrelako prozesuetan.

Herriaren defendatzailearen txostenaren arabera (1999), nahiz nagusiek, nahiz gazteek oso modu erasokorrean jokatu dute jazarpen ekintzaren bat ikusi ostean. Parekideen arteko jazarpenaren giza kutsadura sortzen da eta horrek laguntza indargabetu ez ezik, arazoaren jakitun diren gainerako lagunak jazarpen ekintzan parte hartzera bultzatzen ditu, nahiz eta hasiera batean horretan protagonista izan ez. Faktore hori funtsezkoa da horrelako ekintzak ikusle askoren aurrean zelan gerta daitezkeen ulertuko badugu, normalean ikaskideak izaten direlako, eta ez ikasleen inguruko nagusiak. Besteetan demonstratu denez, biktima bihurturikoen zirkuluan sarrarazi eta bera ere eraso hartzaile izateko beldurrak galarratzen dio zer edo zer egin behar duela sentitzen duen ikasleari ezer egitea.

## Nagusiak (irakasleak eta gurasoak)

Nagusiak normalean ez gara konturatzen *bullyinga*-rekin erlazio naturiko gertaerekin hainbat zio dela eta.

Monbuso txostenak (1994) adierazi legez, gurasoen %50,6k ez daki seme-alabak biktima direnik eta gurasoen %67,4k jakiten du biktimek eurek esanda eta ez ikastetxeko arduradunek esanda. Horrelako datuek sendesten dutenez, irakasle asko eta asko ez da konturatzen gertaerez (Byrne, 1994; Monbuso, 1994; Herriaren Defendatzailea, 1994) eta ez da sentitzen hori aurpegia emateko prestaturik (Byrne, 1994). Izan ere, kolektibo hori izaten da biktima bihurturiko ikasleek jakitun jarritako azkena (Whitney eta Smith, 1993; Herriaren Defendatzailea, 1999). Horrek berez beste zailtasun bat dakar hautemateari eta esku hartzeari dagokienez, gauzek azalera irtean dutenean, erasoaren eskalada biktimarentzako arrisku eta intentsitate mailarik handienetan izaten baita. Beraz, beharrezko da nagusiak horrelako gertaeren garrantziaren jakitun jartzea adi eta erne egon ez ezik, ikasleekin batera ere argitzeko zein jarrera eta harreman ez diren onargarri eta, ondorioz, biktimek horren berri eman beharko dutela horrelakorik gertatu gero, eskoletan egon behar duen gizarte giro positiboari kalte egiten baitiote (Herriaren Defendatzailea, 1999). Ekimen positiboak izan dira neska-mutilekin egoten diren helduak trebatzea irakasleen eta ikasleen aurkako jazarpen egoerei behatzen (Smith, 1994).

## Bullyingaren ondorioak

### Biktimarentzakoak

Ondoriorik kaltegarrienak biktimarentzat izaten dira, helmuga izan baititzake porrota, eskola zailtasunak, larridura maila handi eta etengabeak, aurretiazko larridura batez ere, asebetarik ez egotea, eskolara joateari fobia izatea, arrisku fisikoak eta, azken batean, pertsonaren garapen zuzen eta osokoarentzako nortasun segurtasunik eta osasunik gabea osatzea. Olweusek (1993) dioenez, biktimak bere baliabidez eraso egoeratik irteteko izaten dituen zailtasunak normalean harengatik ondorio negatibo nabarmenak sortuko dituzte, hala nola autoestimazioa murriztea, depresio koadroak eta, horien ondorenean, eskolan integratu ezina. Ildo horretatik, biktima bihurtze hori luzatzen denean, sintoma klinikoak ager daitezke, neurosi, histeria eta depresio koadroetara bilduak. Bestalde, horrek eragin kaltegarria izan dezake gizarte nortasunaren garapenean. Azkenik, oso irudi negatiboa izan ohi dute beren buruaz ikaste eta jokabide gaitasunari zein piura fisikoari dagokienez. Inoiz edo behin suizidatzen saiatzera daroaten eraso erreakzioak ere izan daitezke.

### Erasotzailearentzakoak

Erasotzaileak ere ondorio eznahikoak jasan ditzake, helburuak lortzen ikas baitezake eta, ondorioz, delitu jokabidearen atarian egon. Erasotzailearen jokabideak jazarpen ekintza indarrezkoa gauza on eta gurako moduan indartzen du eta, bestalde, taldean estatusa lortzeko metodotzat, besteen onarpen sozialaren era bihurtzen da.

Gizarte loturak horrela ezartzen direla ikasten badute, ekintzok hedatuko dituzte beste integrazio talde batzuetara, horietan ere gogaikarri izango direla. Bikotea eratzten dutenean ere, bestea menperatu eta zapaltzeko modu hori etxeko elkarbizitzara eroan dezakete, emakumeek sarritan jasaten dituzten jazoera ezbeharreko horietan jazo legez.

### Ikusleentzako

Ikusleek ez diraute kalterik gabe gertaerok direla eta, horrelakoetan ikasten dute-eta zelan jokatu egoera zuzengabeetan, jarrera indibidualistak eta berekoiak indartu ez ezik, eta, are arriskutsuago, jokabide erasokorrari garrantzizko eta errespetagarri irizteko erakustoki ere bihurtzen direla. Horrelakoentzako ondorioztat aipatzen da besteenganako sufrimenduaz sorgor bihurtuz joatea jazarpen egoerak behin eta berriro ikusi ahala galarazteko ezer egiteko gauza ez direla. Bestalde aipatzen denez, ikusleari erasotzailearen jazarpena jasotzeko larridura murrizten zaion arren, noizbait senti dezake biktimak izaten duenaren pareko babesgabetasun zirrara.

## Eragina izan dezaketen zenbait aldagarri: Aldeko faktoreak, babes faktoreak

Faktore mota desberdinak adierazten dira jazarpen jokabideen sortzaile eta iraunarazle moduan. Halaber, sarritan erabiltzen dira ikerketek desmitifikatu dituzten faktoreak halere, horiek jazarpen egoera agerrarazten eta iraunarazten erabakigarriak balira legez. Guk batzuk ekarri ditugu hona, gertaera eremuen arabera sailkatua.

### Famili eremuan

Famili inguruak, ezbaierik gabe, erabateko garrantzia du pertsonarteko harreman motak ikasterakoan. Horrela, familiaren egitura eta dinamika, gurasoen irakats estiloak, neba-arrebenganako harremanak eta abar noraezean kontuan izan beharreko faktoreak dira, babes faktore nahiz arrisku faktore bihur baitaitezke umeak berdinen harremanean erasotzaile edo biktima izateko.

### Hiru faktoreak

Olweusek, 1980.ean eta berrikiago (1998), famili esparruan kokatu ditu bere iritziz jazarpen erantzunaren eredu sortzen laguntzen duten lau faktoreetatik hiru, segituan hurrenkeraren arabera zerrendatuko direla:

1. GURASOEN EMOZIO JARRERA edo haur zaintzailearena Emozio jarrera erabakigarriagoa da lehenengo urteotan. Jarrera negatiboak, afekturik eta dedikaziorik gabeak arriskua gehituko du gerokoan besteei eraso egingo dien laguna bihurtzekoa. Babes faktoreak kontrako ondorioa izango du.
2. GURASOEN PERMITSIBITATE MAILA umearen JAZARPEN EKINTZArenaganako Umeak ikasiz joan behar du non diren besterenganako jazarpen jokatibidetzat jotzen denaren mugak. Nagusiek eskuza-

balegi jokatu gero, subjektuak azken buruan ikasi behar duenaren ikuspegia desitxura dezakete. Ikaskuntza hori iparra galduta gauzatzen bada, lehenengo faktoreaz batera lagungarri izan daiteke jazarpen erantzunaren ereduari begira.

3. AUTORITATEA SENDESTEKO METODOAK Zaintzaileak normalean umearen aurka zigor fisikoa eta emozio jazarpena erabiltzen baditu, horrek erasokortasun handiagoa eragingo du eta "indarrak indarra dakar" esamoldea egia bihurtuko. Umeek ikasi eta bereganatu behar dituzten arauak ezin dira inoiz zigor fisikoaz ezarri behar.

Beraz, zaintzaileak umeari dizkion maitasuna eta dedikazioa, zilegi eta debeku diren jokabideei muga argiak jartzea, eta heziketan metodo zuzentzaile ez fisikoak erabiltzea ume berjabe eta armoniatsuen jatorri dira.

Famili eremuko beste faktore batzuek ere izan dezakete aldeko edo aurkako eragina jazarpen eredia garatzera-koan:

- Neurrian begiratzea ea zertan diharduten neska-mutilek ikastetxetik kanpo, zer egiten duten eta norekin doazen, batez ere nerabezaroan.
- Senide nagusien arteko harremanak, gatazkak eta horien maiztasuna, gurasoen arteko eztabaidak, haurrak aurrean izatea horiek gertatu artean.
- Umeak aliatu moduan erabiltzea bikote eztabaidetan, alde batera uztea ala ez.
- Telebista zelan eta zenbat denboran erabiltzen duten, ea ikusten dituzten neska-mutil ikusleen erasokortasun maila nonbait gehitzen dituzten programak.
- Aita alkoholiko eta basatia izateak ere garrantzi erabakigarria du.

### Gizarte eremuan

Fenomenoan bada bestelako gizarte eta kultura faktore eragilerik eta horiek ezagututa gertaera motaren konplexutasuna uler daiteke. Horrela, esaterako, hedabideak, telebista batik bat, heziketa inguru informal garrantzizko garrantzizko bihurtu dira ume eta nerabeen kozkortzean. Hedabideek eurek, berez, ezin azaldu dezakete haur eta gazte indarkeria, baina gizarteak onarturiko indarkeriazko programak ikustea gehitu dakieke gainerako arrisku faktoreei. Komunitatearen baliabideek, esaterako, zerbitzu sozialek, juridikoek edo polizialek zeregin garrantzitsua izaten dute jazarpenari aurrea hartzerakoan. Azkenik, ezin ahantz daiteke kultur sinesmen eta balioek zelako garrantzia duten berdinen arteko tratu txarraren arazoa azaltzerakoan (Smith, Morita *et alt.*, 1999). Horregatik, auziak oso bestelako forma eta intentsitateak izango ditu kultura eta mikroturen arabera.

### Indarkeria estrukturala

Ezin ukatuzko eragina dute gizarteak berak eta hedabideek nahigarritzat bultzatzen dituzten ezaugarriek (Mooij, 1997), herritar askorentzat bortxazkoak dira estrukturaliki. Tarte handia doa herritar askoren abiapunturik nahigarri aurkezten zaien jomugaraino.



Horrela tentsio estrukturalerako giroa sortzen da boterea, dirua, arrakasta, kontsumo ondasunak, maskulinitasuna goraipatzearen ondoriozko matxismoa gurtzea, indarkeria hedabideetan sarriko tresna agertzea direla bitarte, horrek denak eraso jokabideei eusten laguntzen duela.

## Taldearen esparruan

### Kutsadura soziala

Oro har, talde baten barnean diharduen ereduak ikusle guztietan du eragina, baina batez ere espiritu kritikoa eratu gabe dutenetan, seguru sentitzen ez diren lagunetan, menpekoak izanik, beste taldekideek kontuan izaten ez dituzten pertsonetan. Horrelako subjektuetan gizarte kutsadura izenekoak jazotzen da eta hori bitarte dela ikusten duten ereduaren jokabidea bereganatzen dute, eurentzat taldean beren nortasuna inposatzeko modua da eta.

### Inhibizioak ez kontrolatzea

Aurreko gogoetatik ondoriozta daitekeenez, ereduaren jazarpen ekintzek arrakasta eta saria jasoz gero, ikuslearen modu erasotzailean jokatzaren aurkako inhibizio oztopoak ahulduko dira. Indarra eta beldurra baliatuta guraria lortzen duenaren eraso eredu ikusita, ikusleak horrela jokatzaren aurkako mugakizunak ahulduko ditu agintzen zaizkion sariak direla bitarte.

*Bullyingari* gagozkiola, erasotzailearentzako saria izango litzateke "menpekotzat" ebaluatzen duen biktimari garaitzea eta aurka egitea, hau ez baita erreakzionatzeko gauza. Inguruko nagusiek edo gainerako ikaskideek erasotzaileari aurre egiten ez badiote, segituan ondorioztatuko dute indarkeriazko ekintzak ez duela inongo zigorrik izango eta, beraz, gero eta gehiagotan gertatuko da, erasotzaileak saria lortzen baitu (biktimari eraso egitea) inongo zigorrik jasan gabe (nagusien edo ikaskideen gaitzespena).

### Banako erantzukizuna ahulduz joatea

Taldean edo beste lagun batzuen ondoan erasoaren moduko ekintza gaitzetsietan parte hartzeak norberaren erantzukizuna ahulago hautematera daroa. Gainera, bakarka eginda sentituko litzuketan erru sentimenduak murriztu egiten dira horrelako egokieran.

### Biktimarenaganako hautematea aldatzea

Biktimak etengabe irainak, erasoak eta abarrak metatzen baditu taldearen aurrean eta gainerako ikaskideek ontzat emanda edo, bederik, aurka egiten ez dutela, azkenean biktima ikusiko dute horrelako gauzak jasateak axola ez dion pertsona moduan, balio gutxitzat, zelan edo hala, "gertatzen zaiona ondo irabazitako" laguntzat. Hautemate horrek erruduntasun txikiagoa ere sortzen du erasotzaileari gagozkiola.

### Pertsonaren eremuan

Subjektu batzuen ezaugarri edo baldintza pertsonalak ere arrisku faktoreak izan daitezke halako egokiera batzuetan erasotzaileak kideen aurka oldartzerakoan

(Olweus, 1998). Ezaugarri horiek –erasokortasuna, kontrolrik eza, toxikomaniak, jazarpen jokabideak umeumetan ikastea– *bullyingaren* fenomenoaz azaltzeko erabili dira, baina ezin onar daitezke jazarpenaren zergatikoa bakartzat. Antzeko zer edo zer esan liteke biktimen zenbait berezigarri –ahulezia fisiko edo psikologikoa, autoestimazio txikia eta abar– hizpide hartuz gero.

## Kanpo desbideratzeak

Kanpo desbideratze moduan aipatu ohi dira banakoa talde orokorreko beste lagunetatik berezi eta desberdin egiten duten ezaugarriak (Olweus, 1993). Gizentasuna, betaurrekoak edukitzea, altuera, larruaren kolorea, hizketan edo keinuka jarduteko modua, ilearen forma eta kolorea eta beste ezaugarri batzuk, taldean ohiko denaren oso bestelakoak diren neurrian, erasotzaileek erabil ditzakete biktima barregarri uzteko. Halere, nahitaez eragiten dituzte beren jabeen aurkako erasoak horrelako bereizgarriek?

Olweusek (1993, 1998) ez deritza kanpo desbideratze horiek biktimenganako erasoak azaldu ditzaketarik. Bere ikerlanetan egiaztatu duenez, kanpo desbideratzearen bat edo beste dela-eta bereiz daitezkeen ikasleen %75, hau da, ia denak, desberdinak gara ezaugarri jakinen bati erreparatuz gero. Horretan funtsatzen du egile eskandinaviarrak hain erraza izatea kanpo desbideratzei leporatzea biktima bihurtzeko ekintzetan, gehiago ala gutxiago denek ezaugarriaren bat izaten dutelako. Behatzailearen aurreiritzia izango litzateke.

Gainera, biktima bihurtzeko gertaeretatik at geratzen den hainbat lagunek ere du kanpo desbideratze horietako bat, hala nola betaurrekoak edukitzea, gizona izatea edo larua zurbilegia izatea. Erasotzaileak mina sortzeko bide moduan biktimen kanpo desbideratzei aihar egiteak ez du esan gura desbideratze horiek erasoaren zergatikoa direnik. Ildo horretatik, desbideratzeak bitartekari izango lirateke erasoek ekiterakoan, baina ez dira erabakigarriak arazoa larriagotu, sakondu, bertan behar utzi edo ebazteko orduan.

Bada, halere, erasotzailearen irudiari elkartzen zaion kanpo desbideratze bat: indar, sasoi fisikoa. Kanpo desbideratze hori erasotzailearen aldekoa da oro har kideei dagokiela eta, bereziki biktimekin alderatuz gero.

## Eskola esparruan

Eskola esparrua erabakigarria da ikasleek beste ikaskideekin eta irakasleekin dituzten harremanak ezartzekoan. Bai eskola erakundearen egitura osagaietan, bai haren dinamikan, oso garrantzizkoak dira eskolan berdin artean gertatzen diren jazarpenak azaltzerakoan.

## Ikastetxearen eta ikasgelaren tamaina

Lehen adierazita legez, Olweus irakasleak Suedian eta Lagerspetz-ek eta beste batzuek Finlandian egindako ikerlanek (1982) ez dute inondik inora baieztatzen ikarazte eta biktima bihurtze arazo handiagoak izaten direnik ikastetxe eta ikasgela handiagoetan txikitzen baino. Halaber, Olweusek Norvegian 1991.ean oso



tamaina desberdinetako ikastetxeetan aplikaturiko inkestek adierazten zutenaren arabera, “ez zegoen erlazio positiborik erasotzaileen eta biktimen arteko arazoan (ikasle biktima edo erasotzaileen ehunekoak) larria eta eskolaren edo batez besteko taldearen tamaina erkatuz gero” (1998, 42. or.)

Interesgarria da adieraztea, bestalde, Norvegiako eskola unitarioetako ikasleekin (hainbat adin tarte desberdin) eta lehen hezkuntzako talde homogeen samarretako ikasleekin gauzaturiko ikerlana. Ez zen desberdintasun muntadunik topatu erasoaldien eta biktima bihurtzeen ehunekoetan.

Halere, nazioarteko beste estudio (Rutter, 1983) batzuek sendetsitako ondorio horiek ez dira oztopo egiaztatzen zenbat eta ikasle gehiago aztertu, orduan, pentsatzekoa denez, ikasle erasotzaile eta biktima kopuru handiagoak topatuko ditugula.

### Ikastetxe antolamenduarenak

Antolamendu osagaiek, dela ikastetxean, dela ikasgelan, dela ikastaldean, zeregin erabakigarria izan dezakete jokabide antisozialak sustatzen ala indargabetzen. Garrantziko deritzegun batzuk adieraziko ditugu:

- Eskola eta jokatzeko araurik ezarrita egotea ez egotea: behar-beharrezko da ikasleak jokatzeko ereduaren kodea ezagutzea eta betetzea, baita kode hori hautsiz zelako prozesua hasiko den ere. Beraz, bideak jarri behar dira ikasleek parte har dezaten arauak ezartzen, bereganatzen eta ebaluatzen, errazago baneratzeko ez ezik, erantzuleago agertuko dira eta.
- Hezkuntza komunitatean partaidetza eredurik ez izateak eragin dezake bai irakasleek, bai ikasleek ez topatzea adostasun biderik erabakitzerakoan.
- Diziiplina sistemak ganorabakoa, laxoa, anbigua edo zurrunezia izanez gero, bortxa eta beldur egoerak sortzen eta iraunarazten lagundu lezake.

### Nagusiak aurrean izatea

Olweusek (1998) aurkitu zuenaren arabera, harreman zuzenakoa da irakaslea aurrean izatearen eta eskolako indarkeria arazoan artean. Zenbat eta irakasle gehiago begirale egon atsedendietan, orduan eta eraso istilu gutxiago ikastetxean.

Horregatik enfasia jartzen du ikastetxeetako atsedendietan behar beste langile esku hartzeko prest edukitzeko beharrezan.

Irakasleek ikararazte eta biktima bihurtzeko egoren aurrean dituzten jarrerak erabakigarriak dira arazoari helduko bazaio.

Beraz, atsedendietan begira ez egotea edo ia ez egotea, irakasleok eta parte ez diren ikaskideek biktimari babesa ez ematea, gaiaren gaineko araudirik ez izatea, irakasleek eta ikasleek elkarrekin ez komunikatzea, irakasleen artean komunikaziorik eta kohesiorik ez izatea dira eskola komunitatearen antolamendu eta elkarbizitza

beste elementu batzuk, jazarpen eta ikararazte jokamoldeetan eragina izan dezaketenak (Fernandez, 1996).

### Laburpena

Orokorrean esatea dugu ezen beldurrarazteko eta biktima bihurtzeko egoeretan eskolan badihala horiek gehitzen dituzten faktoreak, baita banakoak eta taldeak arazo horietatik babesten dituzten faktoreak ere. Ikastetxe bakoitzaren egoera zehatzaren baldintza izango dira faktore horien elkarketa eta garrantzia.

Hona hemen, labur, batzuk:

- Umeei behar adinako afektu zama ematen ez dien hezkuntza era jakin batzuek ez diete behar besteko arreta eskaintzen eta, ondorioz, haurrek ez dute jokamolde eredu argirik baitarazten.
- Famili harremanetako arazo jakin batzuek ondorio izaten dituzte gurasoen arteko gatazkak, dibortzio egoerak, alkoholismoa, gaixotasunak, jazarpena eta abar.
- Gizartean behartsuago eta pobreago izatea, berez ez dira zergatikoa, baina bai umeei heziera eskasagoa eta gatazkatsuagoa ematea errazten duen giro aproposa.
- Hezkuntza alorrean prebentzioaren eta gatazkak bideratzearen gainean jarrera eta jokabide jakin batzuk izatea, batez ere irakasleek. Batik bat egiazta ahal izan da oso garrantzitsua dela irakasleak edo nagusiak ikasleekin egotea eskolaldi osoan ikararaztea murrizteko.
- Guraso eta ikaskide ikusleek jarrera eta partizipazio esanguratsuak dituzte beldurrarazte egoeretan, zeinek bere eremuan.

### Amaierakoa

Azken buruan, *bullyinga* arrunta baino arruntagoa da gure eskoletan eta ez ditu bereizten etniak, kalea edo baserria, eskola pribatua edo publikoa, mutila edo neska... Hezkuntza komunitate osoa da erantzule arazoari behar bezala heltzeko, apurtxo bat ere gutxietsi barik. Gainera, administrazio publikoek baliabide ekonomikoak, prestakuntza-koak eta langileak jarri behar dizkiete ikastetxeei, lanean babesgabe eta noraezean senti ez daitezten.

Eta hori horrelako garrantzitsua da jazarpen egoerak, tratu txarrak, astiro baino sakon birrintzen dituelako eraso hartutako ikaslearen autoestimazioa eta konfiantza, depresio egoeretaraino edo larridura etengabearaino hel baitaiteke, gutxienez, zailago egingo dizkiola bai eskolara egokitzea, bai emaitza akademiko onak izatea, eta, gehienez, suizidioaren moduko egoera mutur-muturrekoetara eroango.

Oinarritzko eskubide demokratikoak dira kontua, horien bitartez ikasleek salbu sentitu behar baitute eskolan, *bullyingak* dakartzan zapalkuntzatik eta nahitako lotsarazte etengabetik



# Egoeraren azterketa eta diagnostikoa





## 0. Ikastetxearen egoeraren azterketa

Lehenengo puntu hau zero zenbakiaz izendatu dugu, bullyingaren kontrako edozein ekimena aurrera eraman baino lehen egin behar delako. Izan ere, ikastetxearen errealtatea ezagutzeak oinarritzko informazioa emango baitigu bullyingari aurre egiteko edozein egitasmo lantzeko.

Helburuak planteatu, baliabideak bilatu, estrategiak planifikatu edo teknikak erabili baino lehen, gure errealtatea ezagutu behar dugu. Eskola komunitatearen barnean egin behar den eztabaidaren osagai garrantzitsua da, erabaki egokiak hartzeko aukera emango diguna.

Ikastetxearen errealtatearen azterketa egiteko bi arlo izango dira nagusienak: ikastetxearen hezkuntza proiektua, eta bullyingarekiko ikastetxearen eta eskola komunitatearen egoera. Plangintzari buruz hitz egingo dugunean gehiago sakonduko dugunez, hemen zertzelada nagusienak baino ez ditugu emango.

Ikastetxearen hezkuntza proiektuari dagokionez zera interesatzen zaigu: ze proiektu mota den, zein den bere hezkuntza joera, gizarte harremanak nola aurrikusten diren, elkarbizitzak duen garrantzia, bullyingari buruzko aipamena egiten duen, eta nolako tratamendua ematen dion: bullyingarekin zerikusia duten pertsonen banakako arazoa den, zigorraren bidez konponduko dena, ala ikuspuntu kolektibo, ekologiko eta sistemiko batetik aztertuta dagoen, bullyinga agertzea errazten duten inguruko baldintzak aldatu nahi dituen.

Ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen egoera aztertzen dugunean zera jakin nahi dugu, bullyingari aurre egiteko zer dagoen gure alde eta zeintzuk izango diren oztopoak gure helburuak lortzeko. Jakinmin horrek

gidatuta, ikastetxearen ingurua, bere instalakuntzak, bere kokapena, bere materialak, bertan lan egiten duten irakasleak, ikasten duten ikasleak eta bere familiei buruzko informazioa bilduko dugu. Datu horiek esango digute gure abiapuntua zen den.

Informazio hori guztia biltzeko modu ugari daude, jakina. Merkatuan eros daitezkeen ikastetxearen ebaluaketa orokorrerako metodoak ere badaude. Metodo horiek erabil ditza zakegu, edo lana gure kabuz antolatu, gure ikastetxearen errealtatea inork baino hobeto ezagutzen dugu eta.

Oinarritzko azterketa honetan bullyingak gure ikastetxean duen eragina ezagutzeko egingo dugun ikerketa ere sartzen da. Ikerketa hori egiteko tresnak eskainiko dizkizuegu aurrerago lan gida honetan.

## 1. Erabilpenerako argibide orokorrak gertakariaren ebaluaketa eta diagnostikoa egiteko

Dokumentu hauen xedea *Bullyinga*, honek ikasleengan duen eragina eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektoreetan beldurrarazpenaz dagoen aurreiritzia ebaluatzea da.

Ez dira mekanikoki erabili behar. Hezkuntza-komunitateak, aldezturik, gertakariari buruzko hainbat gogoeta eginak behar ditu eta tresna hauek erabili beharra dagoela justifikatuko duten bilerak eginak behar dituzte. Halakorik egin ezean, tresnak artifizialki erabiliko dira eta testuinguruarekiko, alegia hezkuntza-komunitateko partaideen konpromiso eta esku-hartzearen inguruko eskariarekiko loturarik gabe, egoera horrek antzutasun arriskua dakarkeelarik.

Era berean, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ikastetxeko esku-hartze organoetan –eskola-kontseilua, irakasle-en klaustroak, koordinazio pedagogikorako lantaldeak eginen den eztabaidaren aitzindaritza hartu behar du bere gain. Parte hartzen ez badu, guztiz gain ikasketaburuak, gerora esku-hartzearen plangintza-lan bat egoteari begirako ebaluaketak ez du zentzu handirik izanen.

Lan hauek ez ditu Orientazio Departamentuak, bere osotasunean, edo psikologia eta pedagogia irakasleak, bakarka, bete behar. Profesional hauen lana gertakaria ebaluatzen eta esku-hartzearen plangintzan eta ezarpenean oso garrantzitsua bada ere, ez dira, inolaz ere, ebaluaketa eta proiektuaren plangintza garatzeaz *arduratuko diren azken erantzuleak ezta bakarrik ere.*

Ene iritziz, afera honetan gehiegizko protagonismo, lan edo dirigismo hartzeak proiektu asko bideragarriak eta baliagarriak ez izatea edo subjektuei, *bullying* egoera bateko biktima edo erasotzaile direnean, teknikoki arreta egitera soilik mugatzea dakar.

## 2. Tresna desberdinak

Aipatu dugun bezala, gure ikastetxeko Bullyingarekiko egoera ezagutzeko tresna desberdinak erabili ditzakegu: Galdera-sortak, azterketa-zerrendak eta elkarrizketa pertsonalak eragile desberdinekin.

Gure ikastetxearen egoeraren diagnostikoa egiteko proposatzen hemen ditugun dokumentuak maila bereko pertsonen arteko beldurrarazpena eta tratu txarrei (Bullyinga) buruz Valladolideko Unibertsitatean egin dudana doktorego tesia eta horretarako burututako ikerketarako sortu edo egokitu ditut.

Ikerketa horren helburua maila bereko pertsonen arteko tratu txarren inguruan eskola komunitatean zeuden aurreiritziak aztertzea zen.

### 2.1. Galdera-sortak

Galdera-sortak ohiko tresnak dira Bullyingaren eragina neurtzeko. Ikerketa askotan erabili dira (2002ko Avilés-ena, 1983ko Olweus-ena, 1998ko Ortega-rena, 1996ko Pereira-rena, 1993ko Whitney eta Smith-ena). Galdera-sortetan gaiarekin zerikusia duten portaerak, pentsamenduak edo sentimenduak deskribatzen dira, ikertu nahi ditugun ezaugarrien arabera.

Oso garrantzitsua da gertakaria kolektibo ezberdinen ikuspuntua kontutan hartuta aztertzea (irakasleak, ikasleak, gurasoak, langile ez-irakasleak...)

#### 2.1.1. PRECONCIMEI, Bullyinga ebaluatzeneko galdera-sorta, ikasle, irakasle eta gurasoenzat (Avilés, 2002)

Galdera-sorta ezberdinek osatuta dago. Lehenik, ikasleentzako galdera-sorta betetzeko moduari buruzko azalpenak ematen dira. Segidan, ikasleentzako galdera-sorta bera aurkituko dugu, eta gero irakasleentzat eta gurasoentzakoak.

### Ikasleentzako galdera-sorta erabiltzeko argibideak

Dokumentu honetan irakasleek ikasleei pasako dieten “PRECONCIMEI” galdera-sortari erantzuteko argibideak daude.

Galdera-sorta honi giro lasai eta serio batean erantzutea ezinbestekoa izanen da.

Era berean, garrantzitsua izanen da lan hori hartuko duen pertsona egokia aukeratzea. Ez ohi da arazorik sortzen tutoretza-orduan eta tutoreak berak pasatzeko, baina zenbait gelatan (osaera eta funtzionamendua edo problematika dela eta) aldatu eta ikasle horiekin inplikazio txikiagoa duen beste irakasleren bati esku hartzeko eskatu behar bazaio, egin daiteke.

### Ikasleentzako galdera-sorta

Ikasleei egiten zaizkien 12 galderak ondokoa ebaluatzen dute:

- 1 Beldurrarazteko moduak. Fisikoa, ahozkoa, soziala.
- 4,6- Tratu txarrak nola eta non gertatzen diren aztertzeko alderdiak.
- 2,3,5,8, Biktimak egoera nola ikusten duen. Maiztasuna eta iraupena barne.
- 7,9, Erasotzaileak nola ikusten duen.
- 10,11, Ikusleek nola hautematen duten.
- 12, Irteera-proposamena.

### Ikasleentzako galdera-sortaren erantzun-orria

Galdera-sortako orri suntsikor bakarra da, ondoren informazioa jasotzeko erabiliko dena. Informazioa eskuz prozesatzeko moldatuta dago.

### Irakasleentzako galdera-orria

Informazio hau jasotzeak ikastetxean beldurrarazpenaz dugun ikusmoldeari buruz eta berau errotik erazteko zein neurritaraino inplikatu garen hausnartzea esan nahi du.

### Gurasoentzako galdera-orria

Tratu txarrak mailarik txikienera eramateko lankidetzan horren garrantzitsua den hezkuntza-komunitateko sektore honen jarrerak baloratzeko balio du.

Multzo horietako bakoitzean jasotako informazioa prozesatu eta gerora plangintza eta esku-hartze urratsak bideratuko dituzten ondorioak, taldean hausnartu ondoren, atera behar dituzte ikastetxeko arduradunek. Atal bakoitzean maiztasunak eta horien esanahia ehunekoetan jasoko dituzte.

### 2.2. Azterketa-zerrendak

Azterketa-zerrenden bidez, ikastetxe osoan, maila batean edo ikasgela batean egoeraren bilakaera ezagutu ahal dugu, hasierako baldintzak eta sentsibilizazio edo esku-hartze ekintzen ondoren agertzen direnak alderatzeko.

### 2.2.1. Nire bizitza eskolan (Arora, 1991)

Azterketa-zerrenda hau lagungarria izan daiteke *Bullyingaren* bilakaeraren jarraipena aldi-aldi egiteko.

#### Zer dira?:

- Astebetez (hilabetez edo hiru hilabetez) neska-mutikoei institutuan gertatu zaizkienak. Profesionalek ezarriko dute aplikazio epealdia.
- Gauza positibo eta negatiboak, kopuru berdinean, jasotzen dituzte. Premien arabera alda daitezke.
- Doakoak eta fotokopiagarriak dira.
- Dagoeneko landuta daudenak edo norberak landutakoak izan daitezke. Ikasturtean bideratutakoa ingelasa da. Premien arabera, egoki eta alda daiteke.

#### Zertarako balio dute?:

##### Helburuak

- Portaera-motak aztertzea.
- Denboran zehar duen iraupenari edo desagertzeari buruzko jarraipena egitea.

##### Ezaugarriak:

##### Malgutasuna

- Ikastetxearen premien arabera, zerrenda alda daiteke.
- Itemak aldatzen badituzu, eutsi proportzioari, gerora indizeak lortu beharko ditugu eta.

##### Zehatza neurketan

- Bullying portaera-mota anitz dagoelako eta guztien berri izatea komeni zaigulako.
- Neska-mutiek irakasleok kontuan hartzen ez ditugun bullying-mota asko definitzen dituztelako.
- Bullying-ekintzek erantzunak (zintzotasuna) blokea ditzakeen hunkiberatasuna sortzen dutelako eta zerrenda hauekin ikasleen komunikazioa errazten delako.

##### Berehalakotasuna

- Hala behar izanez gero, hurbileneko unean (astea) gertatutakoa jasotzen dute.
- Neska-mutiei gogora ekar dezatela eskatu diegun arte denbora luze joan bada, berandutze horrek informazioa desitxura dezake.

#### Zerrendak, zer-nolako informazioa ematen du?

- Lortzen dugun informazioa kuantitatiboa bada ere, informazio kualitatibo ugari ere lortzen dugu; hauxe da tresna honetan gehien behar duguna.
- Bullyinga zenbatetan gertatzen den eta taldearen eraso maila globalari buruzko informazioa 4, 8, 10, 24, 37 eta 39 itemek emanen digute. Aipatu item horiek zaindu behar ditugu bereziki.
- *Bullying-indizea* (behin baino gehiagotan). Item horiek laukian behin baino gehiagotan ageri badira markatuta, mota horretako bullying-indize zehatza

dagoela eta ebaluatu ohi den eperako (astebetea) aski handia dela adierazten digu.

- *Eraso-indize orokorra* (behin eta behin baino gehiagotan). Erasoindize orokorra, bullying-indizea bera baino zabalagoa (honek ez baititu aldizkako portararak jasotzen), zein den jakiteko, item horiei beraiei erreparatuko diegu, baina "behin" (astean) eta "behin baino gehiagotan" (astean) laukietan ikasleek jarritako gurutzeak kontuan hartuta.
- Ebaluatzen den eskola-gela-taldean dagoen elkarbizitza orokorraren giroa.
- Biktimak identifikatzen ditu.
- Interesgarri gerta dakigukeen itemen bat gehituz gero, sar daitekeen aparteko informazioa.

#### Kudeatzeko baldintzak:

- Galdera-sorta aurkeztu izanaren inguruko azalpenak eman.
- Azken astean ikasleei ikastetxean gertatutakoen berri izan.
- Lehenengo itema ozen irakurri eta nola betetzen den erakutsi behar da (adinaren eta minusbaliotasun-mailaren arabera).
- Banakako lana, eta serioa, ziurtatu behar da.
- Pertsona bakoitzaren pribatutasuna bermatu behar da.
- 40 laguneko taldeentzat, gerora alderaketak egiteko.
- Beharbada, aldizkako indizea (eraso-indizea) indize sistematikoa (bullying-indizea) baino lehenago jaitziko da.
- Tutoretza-taldeak.

#### Errepikapen-uneak:

- Denbora-tarte bat igarota, komenigarria izaten da errepikatzea. Gure asmoa portaera batek bere horretan segitzen duen ala desagertu den jakitea baldin bada, komenigarria da astero egitea.

# PRECONCIMEI

## Ikasleriarendako galdetegia

### APLIKATZEKO ARGIBIDEAK

AVILÉS, J. M<sup>a</sup> (2002)

#### Galdetegiari erantzuteko argibideak

0. Galdetegia betetzen ari zarelarik galderaren bat sortzen bazaizu altxatu eskua eta lagunduko dizugu.
1. Galdetegia izen gabekoa da, baina, nahi izanez gero para dezakezu zure izena 12. galderari erantzutean.
2. Arretaz irakur itzazu galderak. Aukera guztiak birpasa eta aukeratu nahiago duzuna.
3. Aparte daukazu ERANTZUN ORRIAN jarri zure erantzuna hautatzen duzun aukeran gurutze bat jarri. Galdera batzuk testu bat idazten uzten dizute. Halakoetan egin ezazu beti erantzun orrian.
4. Galdera gehienek eskatzen dizute erantzun bakarra. Hala ere, ERNE, zenbait galderatan erantzun dezakezu aukera bat baino gehiago bereiztuz. Edozein kasutan galdera berean azaltzen zaizu.
5. Zenbait galderatan "bestelakoak" agertzen den aukera bat dago. Hau hautatzen da erantzunen zenuena emaniko aukeren artean ez badago. Aukera hau egiten baduzu, erantzun orrian marka ezazu eta puntuzko lerroan idatzi zure erantzuna.
6. Galdetegiaren lehenengo orriari erantzuten bukatzen duzunean pasa zaitetz beste aldera.
7. Arkatzez idatzi. Erantzutean okertzen bazara ezabatu zuzen dezakezu, ez zirriboratu.
8. Oraingoan aurkezten dizugun galdetegia IKASKIDEEN ARTEKO LARDERIA ETA TRATU TXARREN gainekoa da.

Esaten da larderia dagoela neska edo mutilaren batek ohituraz bere ikaskideei beldurra sartzea, mehatxatzea edo abusatzea hartu duenean. Egoera hauek samina eta beldurra sortarazten dituzte defendatu ezinean daudenengan.



# PRECONCIMEI

## Intimidazio eta erasoaren gaineko aurregogoetari buruzko galdesorta

### ERANTZUN ORRIA

AVILÉS, J. M<sup>a</sup> (2002)

**Argibideak:**

Mesedez, galdera guztiak irakur itzazu arretaz eta marka itzazu x batekin, galderaren arabera, zure pentsakera onen derkibatzen duten letrak.

Institutua: ..... Maila: ..... Letra: .....

Herria: ..... Adina: .....

Ni:  Mutila  Neska Naiz Data: .....

1 a b c d e f g

Irakasleak :

2 a b c d

3 a b c d e

4 a b c d e f g h

Familiak:

5 a b c d e

6 a b c d e f g

7 a b c d

8 a b c d e f g h i

Ikaskideak:

9 a b c d e f g h

10 a b c d e

11 a b c d e f

12 a b c d e

**Guk galdetu ez arren, gaia honi buruzko beste zerbait gehitu nahi baduzu, orain egin dezakezu.**  
(Gainera, nahi izanez gero, idatz dezakezu zure izena).

.....

.....

.....

.....

Izena: .....

## PRECONCIMEI

### Ikasleen arteko mesprezu eta irainketen inguruko galdeketa

#### IKASLERIARENDAKO GALDERA ORRIA

AVILÉS, J. M<sup>a</sup> (2002) (ORTEGA, MORA-MERCHÁN, MORA ETA FERNANDEZEN IDEIETATIK EGOKITUA)

**1. Zure ustez zeintzuk dira ikaskideen arteko tratu txar ugarietak?**

- a. Iraindu, izengoitiak jarri
- b. Batengatik barre egin, irrigarri utzi.
- c. Min fisikoa egin, (jo, ostikadak eman, bultzatu).
- d. Batengatik gaizki hitz egin.
- e. Mehatxatu, gauzak eginarazi, engainatu.
- f. Gaitzetsi, bakartu, inorekin ez elkartu, ez parte hartzen utzi.
- g. Besteak.

**2. Maila honetan zenbat aldiz sentitu zara zure ikaskideengatik mehatxatua eta iraindua (tratu txarrak...)?**

- a. Inoiz ez.
- b. Gutxitan.
- c. Askotan.
- d. Ia-ia egunero, ia-ia beti.

**3. Zure ikaskideek noizbait iraindu edo mesprezatu baldin bazaituzte noiztik gertatu dira ekintza horiek?**

- a. Inork ez nau mesprezatu.
- b. Duela gutxi, azken aste hauetan.
- c. Azken hilabeteetan.
- d. Kurtso osoan zehar.
- e. Betidanik.

**4. Zein lekuetan gertatzen dira egoera hauek?**

(Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- a. Ikasgelan irakasle bat dagoenean.
- b. Ikasgelan irakaslerik ez dagoenean.
- c. Institutuko pasabideetan.
- d. Komunetan.
- e. Atsedean lekuan irakasleren bat adi dagoenean.
- f. Atsedean lekuan irakasterik ez dagoenean.
- g. Klasetik irtetzean, institutuik gertu.
- h. Kanean.

**5. Norbaitek iraindu edo mesprezatu badizu hitz egiten al duzu inorekin?**

(Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- a. Inork ez nau mesprezatu.
- b. Ez dut inorekin hitz egiten.
- c. Irakasleekin.
- d. Nire familiarekin.
- e. Ikaskideekin.

**6. Nork gelditzen ditu egoera hauek?**

- a. Inork ez.
- b. Maisuren batek.
- c. Andereñoen batek.
- d. Beste heldu batzuek.
- e. Ikaskide batzuek (mutilek).
- f. Ikaskide batzuek (neskek)
- g. Ez dakit.

**7. Inoiz mesprezatu edo tratu txarrak eman al dizkiozu ikaskideren bati?**

- a. Ez naiz inoiz inorekin sartzen.
- b. Noizbait.
- c. Aldiro.
- d. Ia-la egunero.

**8. Mesprezatu badizute noizbait, zergatik uste duzu egin zutela?** (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu).

- a. Inork ez nau mesprezatu.
- b. Ez dakit.
- c. Zirikatu nituelako.
- d. Desberdina naizelako.
- e. Ahulagoa naizelako.
- f. Adarra joitzeagatik.
- g. Molestatzeagatik.
- h. Merezi dudalako.
- i. Besteak.

**9. Halako egoeretan parte hartu baduzu zergatik egin zenuen?** (Erantzun bat baino gehiago aukera dezakezu)

- a. Ez dut inor mesprezatu.
- b. Zirikatu nindutelako.
- c. Niri besteek berdina egiten didatelako.
- d. Desberdinak direlako (ijitoak, atzeratuak, kanpotarrak, paioak, beste lekuetakoak...).
- e. Desberdinak direlako.
- f. Ahulagoak zirelako.
- g. Zirikatzeagatik.
- h. Txantxa egiteagatik.
- i. Besteak.

**10. Zergatik uste duzu mesprezu eta iraintze egoera hauek gertatzen direla?**

- a. Zirikatzeagatik.
- b. Besteekin sartzeagatik.
- c. Indartsuagoak direlako.
- d. Txantxa egiteagatik.
- e. Beste arrazoiak

**11. Zein ugaritasunarekin gertatu izan dira azken hiru hilabete honetan mesprezu egoera hauek (Izengoiti jarri, irrigarri utzi, jo, ostikadak eman, bultzatu, mehatxatu, gaitzetsi, elkarrekin ez ibili,...) zure institutuan?**

- a. Inoiz ez.
- b. Bost aldiz baino gutxiago.
- c. Bost eta hamar aldiz.
- d. Bost eta hogeit aldiz.
- e. Hogeit aldiz baino gehiago.
- f. Egunero.

**12. Zer gertatu beharko litzateke arazoa konpontzeko?**

- a. Ezin daiteke konpondu.
- b. Ez dakit.
- c. Irakasleek, familiak eta ikaskideek zerbait egin dezatela.

**Eskerrik asko zure parte hatzeagatik**

## PRECONCIMEI

**Maila bereko pertsonen arteko beldurrarazpenen eta tratu txaren inguruko aurreiritziari buruzko galdera-sorta**

### IRAKASLEENTZAKO GALDERA-ORRIA

AVILÉS, J. M<sup>a</sup> (2002) (ORTEGA, MORA-MERCHÁN, MORA ETA FERNÁNDEZEK EGOKITUA)

**Balora itzazu, zure iritziaren arabera, ondoko esaldiok 1etik (ez nago ados) 5era (ados).**

**a.** Pertsonen arteko harremanak curriculum garapenaren helbururik garrantzitsuenetako bat dira.

1            2            3            4            5

**b.** Erasoak eta bortxazko egoerak arazo larria dira nire ikastetxean.

1            2            3            4            5

**c.** Irakasleak, ikasleen diziplina ezaren eta erasoen aurrean inolako babesik gabe daude.

1            2            3            4            5

**d.** Irakasleak beraiek dira, batzuetan, ikasleen erasoaren jomuga.

1            2            3            4            5

**e.** Ikasleen gurasoek, maiz aski, gatazka areago okertzen dute.

1            2            3            4            5

**f.** Nire iritziz, irakasleok bortxa eta gatazka egoeretan esku-hartzea gure heziketa lanaren beste eginkizun bat da.

1            2            3            4            5

**g.** Nire gelan gatazkek eta erasoak kontrolatu eta eragotzi egiten ditut; honenbestez, ez dira arazo bihurtzen.

1            2            3            4            5

**h.** Irakasleak, beste irakasleen laguntzarik gabe, ez daude Institutuan sortzen diren harreman txarrak eta bortxa konpontzeko prestatuta.

1            2            3            4            5

**i.** Bortxa-arazoak deuseztatzeko, ezinbestekoa da irakasle guztiek horren inguruko kontzientzia hartzea eta horren aurka jarduteko erabakia hartzea.

1            2            3            4            5

**j.** Institutuan ikasleen artean gertatzen diren bortxa-arazoak deuseztatzeko, familiak inplikatu behar dira.

1            2            3            4            5

**k.** Eskola- eta heziketa-karga pertsonen arteko harremanetan sortzen diren arazoetara, besteak beste, dedikatzea ezinezkoa egiten duen eskakizuna dira.

1            2            3            4            5

**l.** Bortxa-egoerak deuseztatzeko eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko, eskola-curriculum aldatu beharra dago.

1            2            3            4            5

**ll.** Nire iritziz, egokia litzateke nire ikastetxean erasoen eta bortxaren inguruko esku-hartze proiektu bati ekitea.

1            2            3            4            5

**m.** Irakasle naizen aldetik, nire iritziz, bortxa- eta beldurrarazte-arazoak bezain garrantzitsuak dira ikasleen eskola-errendimenduarekin zerikusia duten arazoak.

*Mila esker zure laguntzagatik*

## PRECONCIMEI

### Maila bereko pertsonen arteko beldurrarazpenen eta tratu txaren inguruko aurreiritziari buruzko galdera-sorta

### GURASOENTZAKO GALDERA-ORRIA

AVILÉS, J. M<sup>a</sup> (2002)

Galdera-sorta honen helburua Institutuko neska-mutilen arteko harremanak nolakoak diren eta haien artean zein arazo dau den jakitea da. Lortuko dugun informazioarekin hobeto egin ahal izanen diegu aurre arazo horiei. Arazo horietako bat **NESKA-MUTILEN ARTEKO BORTXAKERIA ETA TRATU TXARRAK DIRA**.

Neska edo mutilen batek bere ikaskideei beldurra eragiten edo haiez abusatzen duenean, tratu txarrak eta beldurrarazpena daude. Egoera hauek amorrua eta beldurra eragiten diete pairatzen dutenei, ezin baitute beren burua defendatu.

Galdera-sorta hau anonimoa da. Erantzuterakoan zintzotasunez jokatzeko baduzu, arazo horientzat soluzio egokiak topatzen lagunduko diguzu.

#### ZINTZOTASUNIK HANDIENAZ ERANTZUTEA ESKATZEN DIZUGU.

#### ERABATEKO ANONIMATUA ZIURTATZEN DIZUGU.

**Balora itzazu, zure iritziaren arabera, ondoko esaldiok 1etik (ez nago ados) 5era (ados):**

- |  |  |
|--|--|
| <p>1. Nire seme-alabek ikasten duten Institutuan bortxakeria eta beldurrarazpena daude.</p> <p>1      2      3      4      5</p>                         | <p>10. Bortxa- eta beldurrarazte-arazoen jatorria ikastetxean dagoen harreman-giroaren baitan dago.</p> <p>1      2      3      4      5</p>                                       |
| <p>2. Institutuko irakasleengan konfiantza dut.</p> <p>1      2      3      4      5</p>   | <p>11. Bortxa- eta beldurrarazte-arazoen jatorria gizartean dagoen harreman- giroaren baitan dago.</p> <p>1      2      3      4      5</p>  |
| <p>3. Ikastetxeko irakasleak bortxa- eta beldurrarazte-arazoak eragozten saiatzen da.</p> <p>1      2      3      4      5</p>                           | <p>12. Neska-mutilek ikusten dituzten telebista-programek bortxa- eta beldurrarazte-arazoak egon ahal izatea bultzatzen dute.</p> <p>1      2      3      4      5</p>             |
| <p>4. Ikastetxeko irakasleekin dudan tratuarekin pozik nago.</p> <p>1      2      3      4      5</p>  | <p>13. Familiaren barnean, noizbait, min fisikoa (nire seme-alabak jo) erabili behar izan dut portaera arazoren bat konpontzeko.</p> <p>1      2      3      4      5</p>          |
| <p>5. Irakasleei arazo hauek konpontzen laguntzeko, ikastetxean gehiago parte hartzeko prest nago.</p> <p>1      2      3      4      5</p>              | <p>14. Bortxa edo beldurrarazpen egoeren berri dudanean, Institutuan nire seme edo alabaren tutoreari jakinarazten diot.</p> <p>1      2      3      4      5</p>                  |
| <p>6. Nire seme-alabengan konfiantza dut.</p> <p>1      2      3      4      5</p>   | <p>15. Institutuan neska-mutilen arteko bortxa- eta beldurrarazte-arazoak eragotziko lukeen programaren batean parte hartzeko prest nago.</p> <p>1      2      3      4      5</p> |
| <p>7. Uste dut nire semea/alaba ez dela sekula gauza izanen bortxa edo beldurrarazte-ekintzetan parte hartzeko.</p> <p>1      2      3      4      5</p> | <p>16. Nire iritzi, bortxa- eta beldurrarazte-arazoak bezain garrantzitsuak dira ikasleen eskola-errendimenduari zerikusia duten arazoak.</p> <p>1      2      3      4      5</p> |
| <p>8. Nire semeak edo alabak bortxa- edo beldurrarazte-arazoren bat balu, esango lidake.</p> <p>1      2      3      4      5</p>                        |  |
| <p>9. Bortxa- eta beldurrarazte-arazoen jatorria familian dagoen harreman- giroaren baitan dago.</p> <p>1      2      3      4      5</p>                |  |

**Mila esker zure laguntzagatik**

## AZTERKETA-ZERRENDA

### Nire bizitza eskolan

(SHARP ETA SMITH, 1994)

Ni:  Mutila naiz  Neska naiz Adina: ..... Urtea: .....

Aste Honetan zehar Ikastetxe/ Institutuan Neska/mutilen batek:	Inoiz ez	Batzutan	Behin baino gehiagotan
1. Gaitzizenez deitu dit			
2. Zerbait atsegina esan dit			
3. Ene familiarekiko intentzio txarra adierazi du			
4. Niri ostikadak ematen saiatu zen			
5. Atsegina izan zen nirekin			
6. Ezberdina naizelako ezatsegina izan zen			
7. Opari bat eman zidan			
8. Jipoi bat emanen zidatela esan zidaten			
9. Sosa pixka bat eman zidaten			
10. Nik berari dirua eman niezaion saiatu zen			
11. Ni ikarutzen saiatu zen			
12. Galdera txotxolo bat egin zidan			
13. Gauzaren bat mailegatu dit			
14. Eten egin ninduen jolasten ari nintzelarik			
15. Nik eginikoaz ezatsegina izan zen			
16. Arropari buruz elkarrekin mintzatu ginen			
17. Txantxa bat egin zidan			
18. Gezur bat esan zidan			
19. Lagun talde bat nire kontra jardun zuen			
20. Niri mina egiten saiatu den jendea izan da			
21. Irribarre egin dit			
22. Ni arazoetan sartzen saiatu zen			
23. Zerbait eramaten lagundu zidan			
24. Niri mina egiten saiatu zen			
25. Nire lana egiten lagundu zidan			
26. Nahi ez nuena egin arazi zidan			
27. Telebistaren gauzei buruz nirekin mintzatu zen			
28. Gauzaren bat kendu dit			
29. Nirekin zerbait konpartitu du			
30. Nire larruazalaz kaskarro izan da			
31. Oihukatu zidan			
32. Jolastu zuen nirekin			
33. Gauzak gaizki egin nintzala saiatu ziren			
34. Ene gustuko gauzez mintzatu zitzaidan			
35. Modu bortitzean nitaz barre egin zuen			
36. Kontakatilu eginen zutela esan zidaten			
37. Nirea zen gauza bat puskatzen saiatu ziren			
38. Nitaz gezur bat esan zuten			
39. Ni jotzen saiatu ziren.			

# Plangintza







Bullyngaren aurkako plangintza prestatzeak eskola komunitateko kide eta kolektibo guztien arteko koordinazio ahalegin handia eskatzen du. Izan ere, Bullynga konpontzen hasteko ezinbestekoa da ikastetxeko eskola komunitate osoa kontzientziatuta eta konprometituta egotea.

Gainera, ikastetxe bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta horregatik bullying maila eta modu desberdinak daude ikastetxe batetik bestera (Avilés, 2002; Ortega, 1998) maila bereko pertsonen arteko tratu txarrengan eragin handiena duen faktorea delarik. Beraz, Bullyngaren aurkako plangintzaren lanketa, ikastetxe bakoitzean eta bere ezaugarrien arabera egin behar da. Horretarako planteatzen dugun gidoia ere nahiko zabala da, ildo edo galdera nagusiak finkatzen dituen, ikastetxe bakoitzean bere egoera eta arazo berezietan erantzuna emango dien plangintza sor dezan, idatzizko agiri baten bidez.

Zentzu honetan, atal honen asmoa eskolako kolektibo ezberdinek ikastetxe batean Bullyngaren aurkako ekintzen plangintzan elkarri laguntza emateko euskarria izatea baino ez da. Ikastetxe bakoitzak bere ezaugarriak eta historia propioa izanagatik ere, Sharp eta Thompson-i jarraiki (1994), gure iritziz berdin arteko tratu txarrei eta beldurrarazteei modu egituratu eta, denboraren aldetik, sistematiko batez aurre egin nahi dien proiektuak ondoko fase hauek jaso behar ditu: fase desberdinak izan behar ditu. Alegia, sentsibilizazioa eta kontzientziatzea, ikerketa txiki bat egitea, ekintzen proiektua lantzea, proiektua zabaltzea eta garatzea, eta azkenik, jarraipena eta ebaluaketa egitea.

Beste proposamen batzuek (Sullivan, 2001) lana antolatzeke lau fase nahiko argiak planteatzen dituzte: plangintza, programa prestatzea, martxan jartzea eta mantentzea.

Plangintza egiteko planteatzen dugun lan eskema bost galdera nagusiak erantzutean datza.

## 1. Zein da abiapuntua?

(Abiapuntu-egoeraren ebaluaketa)

### Hezkuntza-proiektua eta bullyinga

Ikastetxeak izan dezakeen Hezkuntza Proiektua aztertzea ezinbestekoa izango da, aipatu hezkuntza-proiektuak izango duen orientazioaren arabera, bullyingarekiko jarrera modu batekoa edo bestekoa izango baita. Hezkuntza Proiektuak eskola-komunitatearen benetako hezkuntza-asmoak adierazi behar ditu. Aipatu proiektuan ikastetxearen nortasun-ezaugarriak eta, bestalde, eskola-elkarteak zein hezkuntza-helburu orokor bereganatu nahi dituen jasoko dira.

Beraz, plangintza-dokumentuan ikastetxeak duen hezkuntza-proiektuak eskain diezazkigukeen datuak jaso behar dira:

- Hezkuntza Proiektuan nola jasotzen diren giza harremanak.
- Elkarbizitzak zein leku hartzen duen.
- Tratu txarra kezka hartzen den ala ez.
- Zein ikuspegi ematen zaion tratu txarari, alegia, zigor-ikuspuntutik soilik aztertzen den ala tratu txarrek egotea eta irautea bultzatzen duten egoerak aldatu nahi diren edo horretarako asmorik dagoen.

### Alde eta aurka duguna

Bullyngaren aurkako proiektu baten plangintza egiteko, ez gara hutsetik abiatzen. Gure ikastetxean bertan gartu asmo dugun lanean lagungarri edo oztopo izango diren egoerak emango dira. Taldean hausnartzea eta gure proiektuan dagoeneko lortuak ditugun eta lagunga-

rri gertatuko zaizkigun edo erraz lortuko ditugun alderdiak eta bullyingaren aurka garatu asmo dugun borrokan oztopo izango direnak idaztea da helburua. Aipatu lan hori arlo guztietan egin behar dugu, alderdirik materiale-netatik hasita eskola-komunitatearen sektore eta alderdi guzti-guztietaraino: Ikastetxea (kokapen fisikoa, materiala eta bitartekoak, instalazioak, profesionalak, metodologia, curriculum); Irakasleak (profesionalki nor bere buruarekin gustura egotea, prestakuntza profesionala, harreman-sistema, taldearen kohesioa, lan-egonkortasuna...); Irakasleak (eskola-motibazioa, talde-integrazioa, familiaren egituraketa, gatazkak, zenbaterainoko paret hartzea...); Familiak (maila sozio-ekonomikoa eta kulturala, eskolan duten parte-hartzea, hezkuntza-arloan duten kontzientziak...); Ikastetxearen testuingurua (gizarte-arloko arazoak, erkidegoaren parte-hartzea...), eta abar.

Aipatu datu horiek plangintzan abiapuntu eta proiektuaren abian jartzeko euskarri izango zaizkigu.

### Zeri egin behar diogu aurre?

Fase honek maila bereko pertsonen arteko tratatu txarrei buruz dagoen informazioa behar bezala zabaltzea eskatzen dio eskola-komunitateari. Bullyingari buruzko oinarriko informazioa: zertan den, nortzuek hartzen duten parte, zein ondorio eragiten dizkie pairatzen dutenei, zeintzuk diren bullyingaren arrazoiak, zein modutan gara daitezkeen bullyinga, eta abar.

Informazioa jasotzeaz gain, eskola-komunitateko sektore guztiengandik gai honen inguruan lan egiteko konpromisoa eta bakoitzak bere zereginetan proiektuaren txertatzeko jarrera ziurtatu behar da.

Fase honetan, eztabaidatzea, hausnarketa- eta prestakuntza-jardunaldiak, eta eskola-komunitatearen sektoreen arteko eztabaida-topaketak antolatzea, azken finean, jarrerak adostea, ezinbestekoa izango da.

### Zer joko dugu bullying-tzat?

Bullyinga zer den eta zer ez eztabaidatu beharra dago. Bullying-mota guztiak berdinak diren edo batzuk besteak baino gogorragoak diren baloratu behar dugu. Ikastetxean izaten diren portaerak aztertzea ere garrantzitsua da, beldurraraztetzat joko ditugun ala ez erabakitzeke. Bullyinga helduen ikasleekikoa eta/edo ikasleen helduekikoa den adostu beharra dago.

### Eskola-komunitatearen parte-hartzea

Eskola-komunitateko sektore guztien iritzia jaso behar dugu, proiektuaz duten iritzia, zein ekarri egin diezaioketen, eta nolako parte-hartzea eduki nahi duten jakingo badugu. Ikerketek erakusten dutenaren arabera, komunitate osoak kontsulta horretan parte hartzen duenean, bullyinga murrizteko lanean lortutako emaitza hobea izaten da. Irakasleek bullyingari aurre egiteko proiektuaren plangintzan, gauzatzean eta ebaluaketan parte hartzen dutenean, aipatu emaitza iraunkorrago eta hobea izaten da.

### Zer da benetan gertatzen dena?

#### GALDERA-SORTA BIDEZKO IKERKETA

Ikertzeak garrantzi handiko bi informazio emango dizkigu.

1. Zein bullying-mota dagoen eta zenbatekoa den ezagutuko dugu.
2. Bullyingaren aurkako plana garatzeko, eskola-komunitateak zer pentsatzen duen eta nola antola daitezkeen ezagutuko dugu.

Dokumentu honetan aipatutakoaren ildotik, ikastetxean bullyingari buruzko ikerketa egiteko, hainbat bideri jarrai gaitzaizkioke: galdera-sorta egituratuak (maila batean edo bestean), portaerak analizatzen dituzten azterketa-zerrendak edo subjektuekiko elkarrizketak eta harreman pertsonala. Guk, lan honetan, ezartzen eta informazioa biltzen erraza izango den galdera-sorta proposatzen dugu, zeinak bullying-ean, erasotzailearengan, biktimarengan eta ikusle-jarrera hartzen dutenengan garrantzi handia duten arloetan arakatzeko aukera emango baitigu.

Modua edozein izanda ere, helburua argia izango da, eta ezaugarrietan eta maiztasunean gertatzen ari dena antzematen, eta, batez ere, nola egingo duen antzematen saiatuko da, baita hori lortzeko noren laguntza izango dugun ere.

Laburbilduz, proiektuari hasiera nola emango diogun, noren laguntza jasoko dugun eta diagnostikoa egiteko zein tresna erabiliko ditugun jakin beharra dugu.

#### Noren laguntza jasoko dugun

Bullyingaren aurkako planak zein eduki izan beharko litzuzkeen galdetu behar diegu denei, eta erantzunak, horietatik abiatuta, plana egituratzeko oinarria izan beharko lirateke.

#### Zein tresna erabiliko ditugun

Hobekien zer egokitzen den baloratu beharra dago:

- Galdera-sortak (ikasleak, irakasleak, familiak eta/edo batera).
- Elkarrizketak.
- Bilerak eta topaketak (banan-banan eta taldeka).
- Hainbat topaketatan eta bileratan, edukiaren aldetik, osatuko diren eskutitzak.

#### Kontsulta-tresnetan sar daitezkeen puntuak

Ikerketa, hainbat tresna erabiliz egin dezakegunez, garrantzitsua litzateke plangintzaren barruan bidea irekiko ligukeen informazio aipagarria lortzea. Honela, ikerketak eskola-komunitatearen informazioa lortzen lagundu beharko liguke, honako hauei buruz:

1. Planaren helburu argiak zeintzuk diren.
2. Komunitateko sektoreen jarrerak eta gogoak.
3. Eskuartean duguna eta aurrera begira lagungarri izango zaiguna.

4. Eskuarlean ez duguna, baina nahiko erraz lor deza-keguna.
5. Gabeziak eta gunehak.
6. Proposatzen diren premiak eta bitartekoak.
7. Eskola-komunitateak mahai gainean jartzen dituen soluzio-proposamenak eta aipatu proposamenen zuzendaritza.

## 2. Zer lortu nahi dugun

(Helburura iristeko proposamenak).

### Nora iritsi nahi dugun

Egoeraren analisia eta ikastetxean garatutako diagnosi-lanak proiektuaren helburuak finkatzeko datuak emango dizkigute. Helburuak eta horiek lortzea errealitatearen eta erdiesteko aukeren baitan egotea komeniko litzateke:

- Zein helburu proposatzen ditugu?
- Noizko?

### Zer behar dugun eta zer erabiliko dugun

Hasierako ebaluaketak, halaber, bullyingari aurre egiteko dagoeneko barneratua dugun ezagutzaren berri eman diezaguke. Egoera horrek helburuak, egon daitezkeen soluzioak eta helmena finkatzerakoan, errealitatearen barruan jokatzeko bidea emango digu. Orobat, proiektuari behar besteko bermeaz aurre egiteko, programatu beharreko baliabide material, giza baliabide eta prestakuntzakoak agerian jarriko dizkigu:

- Zer da dagoeneko baduguna?
- Zer da ez duguna, baina lor dezakeguna?
- Zein baliabide behar ditugu?
- Zein soluzio proposatzen ditugu?

## 3. Nola gauzatuko dugu proiektua?

(Jarduera-plana)

### Plangintza

Proiektuaren dokumentuak, aipatua dugun bezala, proiektuaren helburuak eta bullyingaren definizioak eskola-komunitateko kideek duten iritzia eta erabaki adostuak jaso behar ditu; alabaina, informazioa nola jasoko dugun, bullyingari aurre egiteko izango dugun erantzuna, irakasleen, ikasleen, familien, zuzendaritza-taldearen eta ikastetxeko beste pertsonalaren ardurak, pentsatutako prebentzio-estrategiak, jarraipena nola egingo dugun eta proiektuaren ebaluaketa ere jaso behar ditu.

Hori guztia zehazteko jarrai daitezkeen lan-metodologia, lana batzordeka egitearena izan daiteke; betiere, aipatu batzorde horietan eskola-komunitateko kideak ordezkatuta egongo direla, eta, batzordeen eraginkortasuna bermatze-arren, kopuru orekatua izango dela ziurtatuta. Eraginkortasuna erakutsi du, era berean, lan-talde zehatz eta

kide-kopuru mugatukoak, zeinak bere lana modu trinko batez egiten baitu eta, ondoren, ikastetxean erabakiak hartuko dituen batzorde zabalago eta ordezkari gehiago izango duen bati informazioa emango baitio.

### Nola jaso gertatzen dena?

Biktima-egoeran dauden ikasleek gertakari horien berri emateko bideak badituztela ziurtatu beharra daukagu. Era berean, bide horiek ezagunak direla, behar besteko diskrezioa, segurtasuna eta pribatasuna dituztela eta funtzionatzen dutela ere ziurtatu behar dugu.

Planifikatu beharrekoen artean, honako hauek daude:

- Komunikazioari behar bezalako erabilpena emateko, nahitaezkoak ditugun baliabide material eta giza baliabideak bilatu behar ditugu.
- Ikasleek bullyingari buruzko informazioa guri helarazteko aukera izan dezaten, sistemaren bat finkatu beharra daukagu.
- Informazioak jarraitzen duen prozesua finkatuta egon behar da, eta ezaguna izan behar da. Gertakariak ikastetxean erregistratu behar dira "gertakarien parte" antzeko zerbituetan.
- Erregistratzen den informazioa nori erabiliko duen zehazterakoan, zorrotz jokatu behar dugu.
- Gertakariak jasotzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den koordinatzailea izendatu behar dugu.
- Txosten faltsuak eta egiazkoak, eta horien ondorioak bereizteko, beharrezkoa den prozedura finkatuta egon behar da.
- Irakasleek eta ikastetxeko langileek gain, ikasleek eta familiek bullying-jakinazpen bat dagoenean zer gertatzen den ezagutu behar dute.

### Zer gertatzen da bullying-egoera dagoenean?

Zentroak bullying-egoera bat gertatzen denean, zer egin behar den finkatuta eduki behar du. Denek jakin behar dute zein izan behar den erantzuna, eman beharreko urratsak zeintzuk diren eta nortzuek hartuko duten parte.

- Nor izango den arretoa egiten duena, helduak ala neska-mutilen bat (neurtu irakasle-taldeko tutoreen eta irakasleen garrantzia).
- Zein prozesuz baliatuko gara?
- Bullyinga arina edo larria izatearen arabera, erantzun desberdinak egongo diren ala ez.

**Gertakariak arinak direnean:** errieta gogorra, gatazkak konpontzeko teknikak, bilera bateratuak subjektuekin eta beren familiekin, ikasleekin, irakasle-taldearekin, zigorak ezarri...

**Gertakariak larriak direnean:** ikastetxeak bere laguntza ematearen aldeko jarrera ona, gertakarien inguruko ikastetxearen txostenak ziurtatu, ikastetxeak eta familiek parte hartuko dutela ziurtatu, gertakariak barne hartzen dituen ikasleak ikastetxetik kanporatuak izateko eta/edo ikastetxek aldatuak izateko neurriak baloratu, eskolaren

aurka bidera daitezkeen ekintza legalen aurrean prestatura egon, ikasle kaltetuaren familia poliziarengana jo edo legezko beste prozedura batzuk erabiltzeko aukera.

- Zein sistema jarriko dugun abian biktimak irmo eta babestuta senti daitezen.
- Tratu txarrak eragiten dituztenek zein ondorio jasoko dituzten.
- Inolako istilurik ez dela onartuko ikasleei argi eta garbi uztearen garrantzia.
- Nola ziurtatuko dugun biktima salbu dagoela eta ez duela beste erasorik pairatuko.

Jakinarazten diren eta/edo ezagutzen diren bullying-gertakarietan gehien garatzen den prozesuak hainbat etapa ditu:

- Irakasle batek, hainbat bidetatik, bullying-gertakarien berri jaso du eta hori jakinarazten die ikastetxeko arduradunei.
- Ikastetxeak izendatutako arduradunak(ek), irakasle-arekin batera, gertakariak egiazkoak diren eta zenbaterainokoak diren jakingo du, eta idatzizko txosten batean jasoko ditu.
- Irakasle-talde horrek gertakariak konpontzeko soluzioa edo estrategia bilatuko du, eta inplikaturik daudenekin hitz egingo du. Ikastetxeak hartutako erabakiaren berri familiei ere emango zaie.

Arazoa konpontzen bada, horren inguruko txostena gordeko dugu, eta, konpontzen ez bada, aurreko taldeak berriro ere soluzioak bilatu beharko ditu, entrenamendu-programetan eta esku-hartze teknikan parte hartzea eskatuko dutenak; horien inguruko prozesua txosten idatzietan jasoko da.

### **Zein da irakasleon, ikasleen, familien, zuzendaritza-taldearen eta ikastetxeko gainontzeko langileen erantzukizuna?**

Bullyingaren aurkako plana egiteak, dagoeneko garatzen ari garen lanera baliabideak, eginkizunak eta ardurak egokitzea eskatzen du.

Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da sektore bakoitzak bere ardurak zeintzuk diren zehaztea eta bakoitzak bereak bere gain hartzea. Ikasleak bullying-egoerak gertatzea ahalbidetzen duen isiltasuna hausteaz kontzientziatu behar ditugu. Ikasleek ikastetxean segurtasuna izateko eskubidea dute; beren ardura da aipatu segurtasuna murriztuko duen edozein mehatxuren berri ematea. Halaber, ikasleek beren gain har ditzakete bitartekaritza eta ikaskideei laguntzeko eginkizuna ere. Ondoren laguntza-sistemez, ikasle-aholkulariez, ikasle-bitartekariez, eta beste hainbatez hitz egingo dugu.

- Gertakariak salatu.
- Ikastetxean segurtasuna izateko eskubidea eskatu eta defendatu.
- Ezarriko diren laguntza- edo bitartekaritza-programetan parte hartu.

Irakasleak, eta ikastetxeko beste langile batzuk, ez dira bullyinga gertatzen den lekuan egoten. Bullying-egoera baten berri jasotzen badute, ikastetxeak izendatutako pertsonari, oro har, ikasketa-buruari, jakinarazi behar diote. Ikasketa-buruak, besteak beste, gertakariari soluzioa nork eman diezaiekeen erabakitzeko prozesua abian jarriko du. Gertakariari buruzko informazio idatzia beharrezkoa da. Bullying-egoera baten aurrean irakasleek eta beste heldu batzuek tolerantziarik batere ez izatea garrantzitsua da ikasleengan jarrera berberak lortzeko.

Halaber, irakasleen ardura da bullyingari buruzko eztabaida ikasleen artean zabaltzea eta nola aurre egin bidebatzea talde osoan. Zuzendaritza-taldeari dagokionez, erantzukizuna oso argi dago, beraiek izan behar baitira proiektuaren aitzindari eta proiektua ezartzearen eta garatzearen aldeko apustua egingo dutenak. Bullyingaren aurkako plana zuzendaritza-taldearen eta klaustroaren bileretako aztergaietan ageri behar da, baita eskola-kontseilukoetan ere.

- Txosten idatzien bitartez, ezagutzen dituen bullying-egoerak jakinarazi.
- Arazoei soluzioa ematen eta soluzioak bilatzen parte hartu.
- Ikasleengan bullyingari buruzko eztabaida bultzatu.
- Bullyinga ikastetxean egiten diren bileretako aztergaietan sartu.
- Zuzendaritza-taldearen parte-hartze erabakigarria.
- Bullyingaren aurkako teknika eta programetan prestakuntza garatzeko eskakizuna.

Familiek, ikastetxean bullying-egoerak ematen direlako susmoa baldin badute, horren berri eman beharra dute. Ikastetxearekin batera jardun behar dira lanean ikastetxeak familiekiko harremanetarako aurreikusitako eske-maren barnean (informazioa, jakinarazpena, parte-hartzea). Bullying-egoeren aurrean, beren jokabide-kodea zein den argi eduki behar dute bakoitzak bere seme-alabei helarazteko, biktima, erasotzaile nahiz ikusle izan.

- Familiek bullying-gertakariaren bat ezagutzen badute, horren berri ikastetxeari eman behar diote.
- Beren seme-alabekin komunikazio egokia garatu.
- Bullyingaren aurrean, inolako zalantzarik utziko ez duen jokabide-kodea agerian utzi seme-alaben aurrean, hauek gertakarietan izan dezaketen rola edozein dela ere.
- Ikastetxeko proiektuan parte-hartze aktiboa izan.

### **Zein estrategia aukeratuko ditugu?**

Prebentzio-estrategiek curriculum-erabakietan, gelan egingo dugun esku-hartzean gaia txertatzeko moduan, elkarbizitza-eredu egokia bultzatzen duten metodologietan, irakasle, guraso eta ikasle garen aldetik gure portaz egin eta lortu behar ditugun aldaketetan, gatazkei aurre egiteko geureganatzen ditugun sistemetan... izango dute eragina.

Ikastetxea seguruagoa izatea ahalbidetuko diguten estrategiek, prebentziokoak direnek eta esku-hartzeokoak direnek, lotura zuzena izango dute. Ikasleen artean gehien ezartzen direnak laguntza-sistemak eta neurketa-sistemak dira. Biak ere esku-hartze atalean kokatuko ditugu. Nolanahi ere, irakasleek, ikasleekiko elkarrekin-tzan, beren geletan garatzen dituzten estrategiez ere gure iritzia agertu behar dugu proiektuan:

- Nola bultza ditzakegun laguntza-portaerak. Zeintzuk diren portaera horiek bultzatzen dituzten metodologiak.
- Eskolan bullyingaren aurkako zein jarrera bultzatu nahi ditugun.
- Zein estrategia sar ditzakegun gure curriculumean jazarpenaren prebentzioa egiten laguntzeko.
- Helduok nola lagun dezakegun gatazkak konpontzen. Neurketa-estrategiarik aukeratu behar dugun ala ez.
- Zer egin dezakegun neska-mutilen batek erasorik egin ez dezan. Portaera aldatzeko planik ezarriko dugun ala ez.
- Nola jokatuko dugun arrisku-taldeekin: adimen urrikoekin, etorkinekin...
- Saritze-sistematik hartu behar dugun. Esate baterako, puntu-merituen sistema, berdinekiko, irakasleekiko eta lan ondo eginarekiko portaerari buruzkoa.
- Zer-nolako prestakuntza behar dugun bullyingari aurre egiteko. Irakasleentzako, laguntza eskain diezaguketen ikasleentzako (bitartekaritza, ikasle-aholkulariak...), irakasle ez diren langileentzako eta laguntzaileentzako (atseden-patioak eta jangelak) eta funtzionamendu egonkorra duten gurasoen eskola batentzako prestakuntza-plana beharrezkoa den.

### Zein teknika garatuko ditugu?

Teknikai dagokienez, ikastetxeak, bullyingari aurre egiteko, bere iritziz, aproposenak zeintzuk diren zehaztu beharko du Bere aukeraketa egin behar du. Era berean, merkaturan dauden hainbat programaz balia gaitzeko, prebentzio- eta esku-hartzeko estrategiak, eta entrenamendu zehatzeko estrategiak tartekatzen dituztenak, hain zuzen ere.

Bullyingari aurre egiteko, zenbait esku-hartze tekniketara trebatzea, besteak beste:

- Pikasen metodoa, kezka partekatuko metodoa.
- Asertibitatea lantzea.
- Lagun-taldeak.
- Amorrua gobernatzeko prestakuntza.
- Autodefentsa pertsonala.

Bullying-egoera baten barruan nahasita dauden ikasleekin garatu beharreko lana aurreikusita eduki behar dugu:

- Biktimekin garatu beharreko lan-ildoak aurreikusi behar ditugu: asertibitatea, rol-jokoa, lana testu eta bideoekin, autodefentsa pertsonala, lagun-taldeak.

- Erasotzaileekin garatu beharreko lan-ildoak: erruga-betzearen lana eta Pikasen metodoa, ez-erruztatzearen metodoa, amorruren kontrola.
- Ikusleekin garatu beharreko lan-ildoak: rol-jokoak, esku-hartzean eta garapen moralaren lanketan izan dezaketen inplikazioa. Laguntza- eta neurketa-sistemetan parte hartu.
- Harremanen arloan, bullying-egoera batean nahasita dauden pertsonakiko egoera hobereanean dauden tutore, irakasle eta helduak zeintzuk izan daitezkeen aurreikusi.

### Zein baliabide erabiliko ditugun

Ikastetxeak proiektua abian jartzeko beharrezkoak diren bitartekoak aurreikusi behar ditu.

**Bitarteko materialak:** bullyingari aurre egiteko, merkaturan dauden programak, bibliografia, batzarrak, bilerak egiteko guneak (plangintzaren gorabeherak eztabaidatzeko, batzarrak eta bilerak egitea aurreikusi behar dugu), lanketa-saioak, proiektuaren publicitate-materialak (plangintzaren barruko gaiak ikastetxeko ageriko lekuetan jarri: sarreran, korridoreetan, jangelan, gelan, eta abar).

**Giza baliabideak:** ikastetxean parte hartuko duten pertsonak, ikastetxeok ez direnak, gu prestatuko gaituzten adituak...

**Prestakuntza-bitartekoak:** zein arlotan prestatu nahi dugun geure burua, guraso-eskola, prestakuntza-proiektuak ikastetxean, hobekuntza-planak, irakasleen eta gurasoen arteko eztabaida-topaketak...

Bereziki, programa ezagutzera emateko beharrezkoak diren bitartekoak azpimarratu behar dira: dokumentua argitaratu emateko eta horren inguruko publicitatea egiteko bitartekoak, ikastetxeko eta komunitateko aldizkarietan, tokian tokiko prentsan txertatzeko bitartekoak, eta abar.

## 4. Gauzatu egingo dugu

### Aurreikusitako ekintzak garatu

Plangintzan jasotakoa abian jartzeak parte hartuko dutenen koordinazioa eta lankidetzara eskatzen du. Eskola-komunitateak hainbat alderdiri buruzko informazioa banatu behar du: nola jaso bullyingari buruzko informazioa, ikastetxean bullying-egoeraren bat gertatzen denean, zein mekanismo jartzen diren abian eta zeintzuk diren ekintza bakoitzaren erantzuleak.

## 5. Zein neurritaraino ari garen hori lortzen

(Lortutakoaren azterketa eta proposamen berriak).

### Ebaluaketa eta jarraipena

Abian jarriko ditugun neurrien egokitasunaren jarraipena egin behar da. Programaren ebaluaketa orokorra egitea

funtsezkoa dugu, eta horrek aurrera begira egin beharreko aldaketei buruzko informazioa emango digu.

Bullyingaren aurkako proiektu batean inbertitzea epe luzerako inbertsioa da eta zeharka egin beharrekoa curriculumean, klaseen garapen normalizatuan gatazken konponbide-teknikak eta ikasleen esku-hartzeetan aser-tibitatearen entrenamendu-teknikak sartuz. Klaseen garapenean eta elkarbizitzaren gestioan negoziazio-estrategiak sartuko ditugu; ikasleekin estereotipoak landu, eta, amorruneak sortzen direnean, nor bere burua kontrolatzeko ariketak egin.

Bullyingaren aurkako plana aldizka berraztertu eta zuzendaritza-taldearen, klaustroaren eta eskola-kontseiluaren bileretako aztergaietan planaren martxa baloratu behar da.

Abian jarri dugun proiektua bide onetik doan eta espero genituen emaitzak ematen ari den erakutsiko diguten zenbait adierazleri arreta eskainiko die ikastetxeak.

Bullying-gertakariak beren horretan irauten duten, beharra egin duten ala ez. Ildo horretan, jarraipen-estrategiak erabiltzea ona da, besteak beste, azterketa-zerrendak.

- Gertakarien formetan eta larritasunean izandako aldaketak.
- Bullyinga gertatzen den lekuetan izandako aldaketak.
- Ikastetxean egindako txosten-kopuruan izandako aldaketak.
- Ikasleek irakasleei, familiari eta ikaskideei emandako informazioa areagotzea.

Era berean, taldeak proiektuaren martxa ebaluatzeko informazioa, berau nola lortuko duen, prozesu hori nola koordinatuko duen, jasotako informazioa egokia ez bada, zein neurri hartuko dituen eta beste hainbat afera aurreikustea ezinbestekoa izango da.

#### **Aldaketak egiteko eta lan egiteko proposamenak**

Ebaluaketak emango digun informazioak hasierako proposameneko hainbat puntutan aldatu beharko ditugun alderdiak zeintzuk diren erakutsiko digu.

# Esku-hartzea







Bullying egoerak gertatzen direnean eman beharreko erantzuna argia, zintzoa eta zuzena izan behar da, laidoak, isekak, erasoak, mehatxuak edo manipulazioa alde batera utzita. Erantzuna berehalakoa izan behar da, soluzioa epe luzera etor badaiteke ere. Zer gertatu den, nortzuek hartu duten parte eta horren aitzinean zer egin den jakiten lagundu behar digu esku-hartzeak. Horretaz gainera, etapa bakoitzean, familiak inplikatu behar ditu eta **arazoari aurre egiteko egon daitezkeen bidez eztabaidatzeko aukera eman behar die neska-mutilei.**

Esku-hartzeaz ari garenean, ikuspuntu eta eragin-maila desberdinetatik Bullyinga aurreikusi, saihestu edo deusezta dezaketen jarduera guztiak hartu behar ditugu aintzat. Zenbait ikerketa-lanetan (Aviles, 2002), aipatu jarduerak garatzeko ahaleginak egiten dira beroriek landuko dituzten irakasleei baliagarriak gerta dakizkien.

Lan honetan, Bullyinga ezarrita dagoenean eta gure asmoa hori deuseztatzea denean, praktikan jarriko den metodoa (Pikas, 1989) deskribatzen jardungo bagara ere, ezin ahaztuko dugu eta aipatu beharko dugu, labor bada ere, Bullyinga aurreikusten, saihesten eta/edo deuseztatzen Pikas-en metodoa bezain garrantzitsuak diren beste estrategia batzuk ere badaudela, ikastetxeetan garatzen den elkarbizitza hobetzen eta gatazkei soluzioa ematen laguntzen dutenak.

Horiek aipatu aurretik, azter dezagun Bullyinga bi ikuspuntutatik: Bullyinga eta honek beste eraso- eta bortxa-portaerekin duen lotura. Halaber, Bullyinga eskola-testuinguruetan gertatzen diren elkarbizitza-arazoen barnean kokatu beharra dago.

## Bullyinga eta erasoak

Olweus-en iritziak, Bullyinga eraso-portaeraren azpikategoria bat da. Eraso-portaera beste pertsona bati lesioa eta kaltea eragiteko nahita garatzen den portaera dela aitortu arren (Olweus, 1999), beste eraso-portaeretatik bereizten duten Bullyingaren berezko ezaugarriak aipatzen ditu.



1. irudia: Eraso-bortxa eta Bullyingaren arteko lotura. Olweus-en "The nature of school bullying"-etik hartua (1999).

Ez ditu bullying-tzat hartzen antzeko ezaugarri fisiko edo buru-ezaugarri bertsuak dituzten pertsonen artean sor daitezkeen gatazka.

Halaber, indarkeria edo bortxa-portaera eraso-portaeraren azpikategoria litzatekeela adierazten du, baina bere ezaugarri propioak edukiko lituzkeena, besteak beste: erailketa, hilketa, lapurreta larrigarrirekin, lapurreta, ebastea eta bahiketa.

Bullyingaren eta bortizkeriaren arteko erlazioak 1. irudi-ko grafikoan ikus daitezke. Nola Bullyinga hala bortizke-

ria eraso-portaeraren azpikategoriak dira. Ereku komun batek elkartzen ditu, bien arteko ebakidurak, hain zuzen ere; horretan, Bullyingak portaera fisikoak edo ukipenezkoak hartzen ditu hainbat modutan adierazita: jo, ostikoak eman, bultzatu, etab.

Diagrama horrek, grafikoki, bortxarekin alderdi komunak ez dituen Bullyinga ere jasotzen du: ahozkoa, keinu bidezkoa, partaide den taldearekiko baztertze sozialeko Bullyinga, etab. Grafikoaren beste aldean bullying gisa har ez daitekeen bortizkeria maila handi bat ere badago: noizbehinkako liskarrak, ezezagunen arteko gatazkak eta istiluak, eskolaz kanpoko bestelako bortizkeria egoera batzuk, etab.

## Bullyinga eta elkarbizitzarako arazoak ikastetxeetan

Autore askok hainbat irizpidetan oinarrituta definitu dituzte ikastetxeetan gertatzen diren elkarbizitzarako arazoentzako tipologia. Guk, tipologia horien artean Bullyinga kokatzeko, esanguratsuenetan sakonduko dugu. Irakasle garen aldetik gure egunez eguneroko eginkizunetan hausnartzen badugu, hainbat problematika identifikatu dezakegu.

- a) Diziplina ezak eragindako arazoak. Ikastetxean behin eta berriro, maiztasunez, elkarbizitzarako arauak hausten direnean gertatzen dira: horien artean, aginduak edo obligazioak betetzeari uko egitea, gauzak botatzea, etab.
- b) Portaera antisoziala. Arau sozialekiko axolagabekeria larriko egoerak, harrokeriaz eta inolako erru-sentimendurik gabe jokatzeko delarik: laido iraingarriak, gezurrak, lapurretak, autoetan arrastoak egitea, altxarrietan kalteak eragitea, sinadurak faltsutzea, estufefazienteak hartzea, etab.
- c) Berdinen arteko tratatu txarrak eta beldurrarazteak (Bullyinga). Laburbilduz, talde bat lagun duela, lider batek ikasle bati eraso egin edo beldurrarazten du.
- d) Portaera disruptiboak. Oldarkortasunez eta eskolalanarekiko motibazio ezarekin eta marjinazioarekin gertatzen diren jokabide gogaikarriak dira: eskolordua maiz etetea edo besteei eragozteak, gelan batetik bestera ibiltzea, ikaskideak bakean ez uztea, behin eta berriro galdetzea, baimenik gabe zutitzea, etab.
- e) Ikasketekiko axolagabekeria. Gogorik eza erakustea, axolagabekeriak edo utzikeriak jokatzeko da. Horren eredu daukagu ikasgelan dagoen eta bertan ikas dezakeena batere axola ez dion ikaslearena; bere gogoia gelatik kanpo dauka, ez du arretarik jartzen, batzuetan mahaian etzanda loak hartzen du, irakasleak arreta deituta ez du behar bezala erantzuten, etab.

Arazo desberdinek erantzun desberdinak eskatzen dituzte eta ekintza bakarrek arazo desberdinei soluzioa ematen ere laguntzen dute. Ildo honetan, hasierako mailatan (lehenengoan eta bigarrenean) jarraian aipatzen diren estrategiak ikastetxeetan gertatzen diren bullying-egoerak hobe-

tzen ez ezik, elkarbizitzako arazoentzako inguruko arriskuen prebentzioa egiten eta arazo horiek saihesten eta inondik inora bullying ez diren gatazken konponbidea kudeatzen ere laguntzen dute. Nolanahi ere, Bullyingaren aurkako ekintzei ikastetxean elkarbizitza hobetzearen ikuspuntutik heldu behar zaiela, eta alderantziz, gero eta ageriago geratzen ari da (Mellor, 1993).

Berdinen artean tratatu txarrak eta beldurrarazteak aurreikusteko (lehen mailako esku-hartzea), kontrolatzeko (bigarren mailako esku-hartzea) eta deuseztatzeko (hirugarren mailako esku-hartzea) programa anitzetan maiz erabiltzen diren hainbat prozedura dago.

Horiek aipatu aurretik, esku-hartze maila desberdinetan (lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena) kokatzen dituzten ikuspuntuak zeintzuk diren adieraziko dugu.

## Lehen maila

Maila honetan, ikaskideen arteko jazarpen-jarrera ez agertzeko ekintza edo metodologia zehatzen bitartez esku hartu nahi duten estrategia edo prozedurak kokatzen dira. Halaber, nerabea, besteekiko jokaera lantzen bultzatuko duten egoeretan garatzeko beharrezkoak diren ekintza, ekintza gehigarri edo aldaketek ere ari gara.

Ildo honetan, ikasleek, arlo batean edo gehiagotan, izan dezaketen arrisku mailari buruzko informazio izateko, bigarren mailako hezkuntzan sartzen direnean aipatu ikasleek dituzten oinarriko ezaugarriak espresuki identifikatzea komenigarria izaten da. Bestalde, ikastetxearen benetako egoerari buruzko analisia eta parte hartuko duten irakasleen esku-hartze eta interakzio estiloak, beren arteko harremanari zein ikasleekikoari dagokionez, lagungarriak eta esanguratsuek dira, funtsezko prebentzio-elementu gisa ulertuta.

Maila honetan, estrategiarik erabilienak honako hauek dira:

### **a) Ikastaldea aldi behin egiten duen asanblada edo bilera.**

Horretan, taldeak arauak betetzea, harreman mailan dagoen giroa eta gelan nahiz ikastetxean sor daitekeen edozein arazo eztabaidatuko da.

### **b) Kalitate-taldea.**

Ikasleen artean berriazko talde bat antolatzen da eta honek arazoa mahai gainean jarri eta aztertu, ikertu, hainbat soluzio proposatu eta ikastetxeko zuzendaritzari horien berri ematen dio azter eta abian jar ditzan. Kalitate-taldea zenbait ikasleren eta helduren baten arteko bilerak egitea ere eskatzen du, ikastetxean dagoen elkarbizitza aztertu eta horri buruz hitz egiteko.

Aipatu dugun hori arazoei soluzio emateko modu parte-hartzailea da. "Kalitate-taldea" kontzeptua enpresa-arlokoa da, non langileak, laneko eragin-kortasunak behera egin duela antzematen denean, arazoei aurre egiteko inplikatzeko baitira. Teknika

hori, geroztik, hezkuntzara egokitu da. Ikasleek, guztienak diren arazoak identifikatu, horiei soluzioak eman eta une horretan taldearen arduradunari (tutorea edo zuzendaria) aipatu soluzioak aurkezteko, taldean egiten dute lana.

Neska-mutilak arazoei soluzioa emateko berariazko teknika eta estrategiatan trebatzen dira. Teknika horien barnean honako hauek sartzen dira: ideiak sortzea, datuak behatzea eta sailkatzea, estrategia eta soluzioak garatzea eta, taldearen ardura duen heldua bertan denean, azken bi horien berri taldean ematea.

### **c) Ikasleen lan-taldeak.**

Arazoarekin lotura duten berariazko gaiez arduratzen dira. Arauak lantzeko proposamenak egiteko (eztabaidatuak, aldatuak eta ikastaldeak onartuak izan daitezzen) nahiz gatazka zehatzak aztertu eta lantzeko baliagarriak izan daitezke.

### **d) Ikaskuntza kooperatiboa.**

Ikaskuntza kooperatiboa (Johnson eta Johnson, 1989) batez ere Ameriketako Estatu Batuetan (Olweus, 1998) garatu den irakaskuntza-metodologia da. Sistema honekin, ikasleek eginkizun komun batean lan egiten dute lan-talde txikitan antolatuta. Talde horiek (bi eta sei bitarteko kidez osatuta), elkarrengandik hurbil eseriko dira zirkulu bat osatuz lana egiteko. Taldearen jardura ebaluatuko dute. Taldeko partaide bakoitza arazoaren emaitza edo arazoari eman dakiokeen soluzioa aurkezteko gai izan behar da ("norbanakoaren erantzukizuna") eta, halaber, partaide bakoitza izanen da proposatutakoa gainontzeko taldekideek berenganatuko dutela ziurtatzearen erantzule. Metodologia honek taldekideen arteko elkarrenganako mendetasun positiboa dakar eta horietako bakoitza taldearen emaitzen berri emateko gai izan behar da.

### **e) Ordu soziala edo tutoretza-lana ezartzea..**

Olweus-ek (1998) gelako bileretan erasoaren aurkako gelako arauak garatu eta definitzeko eta aipatu arau horiek ez betetzean ezar daitezkeen zigorrak hautatzeko sistema edo eztabaida-leku natural bat ezartzen du. "Ordu soziala" izenarekin aipatzen dituen bilera hauetan ikasleek eta irakasleek hartzen dute parte eta aipatu bileren edukia eta egitura ikasleen adinera eta garapen-mailara egokituta egonen dira. Bilera horietan, ikastaldearen barnean eta ikastetxean ematen diren harremanei helduko zaie eta ikasleen arteko eta hauen eta irakasleen arteko interakzioak aztertuko dira.

### **f) Berdinen arteko bitartekotza edo laguntza**

Estrategia honen bitartez ikasleek beren ikaskideek azaldutako gatazketan bitarteko lana betetzen dute. Azkenaldi honetan asko erabiltzen ari den prozedura da, batetik eraginkorra delako eta, bestetik, erantzukizunak hartzen ikastea eskatzen duelako. Gatazkari konponbidea emateko metodo honetan, aurrez aurre dauden bi aldeak beren borondatez hirugarren batengana (ikasle bitartekoa) jotzen dute

bi aldeentzako egokia izanen den adostasunera iristeko (Torrego, 2000).

### **g) Ekintza bateratu positiboak.**

Irakasleak eta/edo gurasoak tartean direla, kontua ikasleekin hainbat ekintza antolatzea da, ikasleen arteko harremanak beste arlo eta modu batzuetan garatzeko antolatutako txangoak, kanpaldiak, festak edo dantzaldiak, alegia. Bai Olweus-ek (1998) bai Madrilgo Autonomia Erkidegoko Elkarbizitza bititza da programak (Carbonell, 1999) guztiz positiboki baloratzen dituzte aisiarako eta tarte librerako ekintza horiek.

### **h) Gurasoen eta irakasleen arteko bilerak.**

Gurasoek ikastetxeko bizitzan eta bertan gertatzen diren beldurrarazte-arazoetan parte hartzea garrantzitsua da. Prebentzioaren ikuspuntutik, gurasoak kontzientziatzea eta hauek irakasleekin elkarlanean jardutea funtsezkoa da. Gurasoek beren seme-alabekin jazarpenaz eta egoera horren aurrean hartzen duten jarrera pasiboaz, ikusle bailiran alegia, hitz egin behar dute. Beldurraraztearen biktimak direnei laguntza eman behar zaiela eta haiekiko harreman sozialak eta sostengua inplementatu behar dutela jakinarazi eta horren inguruan kontzientziatu behar dituzte beren seme-alabak. Hori dela eta, gurasoak eskolan gertatzen diren beldurrarazte esperientziak beren seme-alabekin azter ditzaten zirikatzeko, irakasleen eta gurasoen arteko bilerak beharrezkoak dira (Olweus, 1998), honela eskola eta familiaren arteko lankidetzat estua garatuko delarik.

### **i) Dramatizazioa eta rol-jokoa.**

Aztertzen ari garen arazo honetan, teknika honen bitartez, neska-mutilek egunero bizi dituzten bullying egoerak dramatizatzen dituzte taldetan. Helburua beste jende batek nola sentitzen eta pentsatzen duen erreparatzea eta aztertzea da, beldurra, arriskua, gorrotoa eta beste emozio ilun batzuk kontrolatzen ikasten saiatu beharra dago. Itxurak eginez dramatizatzeak antzeztan ari garen hori egiazki ez dela gertatzen ziurtatzeaz gain, subjektuek prozesuan eragile eta ikusle gisa parte hartzeko aukera ere ematen digu.

## **Bigarren maila**

Bigarren maila honetan, arrisku-faktoreak identifikatzeko estrategiak edo prozedurak sartzen ditugu eta eraso-portaerak daudela aitortuta, horien iraupena al bait gehien murrizten saiatzen gara. Arriskuan dauden nerabeekiko arreta zuzentzen eta hobetzen saiatzen dira aipatu estrategia edo prozedurak. Ikasle horiek laguntza jaso behar dute eta, beharrezkoa bada, orientazioa ere bai.

Gure iritziak, beldurrarazte-egoera gertatzeko arriskua argia eta garbia denean, gelako gertakari eta giro zehatzen inguruan modu zuzen eta zehatz batez esku hartu behar dugu. Horiexek dira bigarren mailako esku-hartzeak. Horrela, beldurrarazte-arriskua agertzeko aukerak murrizten ditugu eta agertuz gero, al bait gutxien irautea.

Cowie eta Sharp-en arabera (1996), egoera zehatz bakoitzera egokitzen diren hiru berariazko neurketa-sistema daude:

1. *Laguntza-sistema*. Kontua, ikasleak ikasten trebatzea da, eguneroko bizitzan garatu beharreko eginkizunetan beste ikaskideei laguntzearen, beren gaitasunak abian jar ditzaten. Horrela, ondoren aipatzen diren eginkizunak bete ditzaketan ikastaldea sortzen dira:
  - *ikastalde bateko ikuskatzaileak izatea,*
  - *beste neka-mutil batzuen "tutore" izatea,*
  - *ikastetxera iritsi berriak diren ikasleen laguntzaileak izatea,*
  - *atsedenaldietako laguntzaileak izatea, etab.*
2. *Ikasle-aholkulariaren sistema*. Neurketa-eredu honen trebakuntza- eta zailtasun-maila handiagoa dakartza, komunikazio gaitasunetan, eta, bereziki, "entzute aktiboan", berariazko prestakuntza eskatzen baitu.
3. *Eskola-bitartekoak*. Bitartekotza-maila hau konplexuena da eta, beraz, komunikazio- eta gatazkak konpontzeko gaitasun sozialetan are prestakuntza-maila altuagoa eskatzen du. Betebeharrak ikasleen artean nahiz irakasle eta ikasleen artean gaur gero egon dauden gatazken ingurukoak izanik, kontua bitartekoei arazoa aztertzea eta aldean arteko adostasunera iristea helburu dituzten eginkizunak ematea da. Modu horretan, eskola-bitartekoak eskolan gertatzen diren gatazkak ebazteko giza baliabide garrantzitsu bilakatzen dira.

## Hirugarren maila

Maila honetan kokatzen ditugun prozesuren xedea eraso-portaerak behin eta berriro errepikatzea saihestea eta portaera horiek ezabatzea da. Dagoeneko abian den portaera antisoziala edo aztoratzailea zuzendu edo hobetzen dute.

Bortxazko gertakari errealak baliatzea garrantzitsua da hirugarren mailako prebentzio arrazoen mesedetan, horien berri ikasleei, irakasleei eta gurasoei emanen zaielarik. Aukera hori bila gabiltzan portaerak bereizteko eta aipatu portaerak esku-hartze errealekin eragozten direla agerian uzteko erabili.

Jakina, gehiegikeria larria denean, lana komunitateko beste sektore batzuetako profesionalekin lankidetzan eginen dugu.

Hirugarren mailako estrategien artean (gatazka egiazkoa eta agerikoa dela erakusten duten egoerak) honako hauek aipatuko ditugu:

### 1. *Pikas-en metodoa*.

Anatol Pikas irakasle suediarrek garatua (Pikas, 1989). Oso erabilia da erasotzaile-talde bati beste ikaskide batekiko eraso-asmoa burutik kentzeko. Erasotzaileekin eta biktimarekin hainbat elkarrizketa egiten dira bakoitza bere aldetik hartuta; horietan,

elkarrenganako kezka sortu nahi da eta, halaber, biktimari laguntzeko banako estrategiak adosten dira. Metodo hau da argitalpen honetan gerora garatzeko hautatu duguna.

### 2. *Errugabetasunaren metodoa ("No blame approach")*.

West of England-eko Unibertsitatekoa den Barbara Maines-ek garatua. Irakaslea biktimarekin eta ikastaldek multzo txiki batekin elkartzen da; azken horien artean erasotzaileak eta ikusle batzuk egon dira. Biktimak taldeari bere sufrimenduaren eta kezka berri ematen dio. Prozesua ebaluatu arte, zazpi urrats zehazten dira. Ikasle bakoitzak aurrera begirako portaera aldatuko dion modu bat proposatuko du. Metodo honek irakasleen prestakuntzarako bideo bat du (Maines eta Robins, 1991).

### 3. *"Lagun-taldea"*.

Zailtasunak dituzten ikasleen emozio- eta portaera-premiak nola landu aztertzen du. Estrategia honek, minusbaliotasun fisiko nahiz psikologikoren bat izatearen ondorioz edo erasotzaile nahiz biktima gisa gehiegikeriazko egoeretan nahasita egotearen ondorioz, bakartze egoeran dauden neska-mutilak talde batean sartzea bultzatzen du (Perske, 1988; Pearpoint, 1992).

### 4. *Eskola-epaimahaiak: "Bully courts"*.

Eskola-epaimahaien irudia ez da berria. Hezkuntzaren erotikako erreforma-filosofia zuten esperientzietan erabiliak izan dira, besteak beste Homer Lane-k Dorset-en "Little Commonwealth" ezarri zuten garatutako esperientzian. Ideia hauek, gerora, A.S. Neill-ek Summerhill-en garatu zituen ohitura demokratikoei bidea ireki zieten, eta, ondoren, Barns-en esperimentuari (Wills, 1945). Esperientzia horietako bakoitzak berezko ezaugarriak bazituen ere, guztiek funtsezko ideia zuten oinarri: funtzionamendu-arauak ezarri eta eztabaidatzeko eta horiek bete ezean nola jokatu aztertze, bilerak maiztasunez egitea (oro har, astean behin).

Laurogeita hamarreko hamarkadan Kidscape erakundeak eskola-epaimahaiak defendatu zituen Erresuma Batuan. Aipatu erakundeak argitara emandako ohartarazpen-kartel batean eskolako programaren barnean arbitraje-epaimahai bat sortzea defendatu zuen. Aipatu epaimahaia lau ikaslek (bi ikaskideek aukeratuta eta beste biak irakasleek proposatuta) eta irakasle batek osatzen zuten. Epaimahaia astean behin elkartzen zen eta bere gain hartzen zituen eskolako programaren portaera-ildoak hausteari soluzioa ematea edo zigorrak ezartzea (salbu eta polizia zegozkion arau-haustetan). Gurasoei eta zuzendaritza-taldeari epaimahaiak hartutako erabakien berri ematen zien eta argitaratu ere argitaratzen ziren. Kidscape-ko zuzendaria den Elliot-ek (1997) epaimahai horiek ezarri dituzten eskolek Bullyinga nabarmenki murriztu dutela adierazi du.

# Pikas-en metodoa

## Ezagutza partekatuko metodoa

### Sarrera

Anatol Pikas, Upssalako Unibertsitateko hezkuntza departamentuko psikologo suediarrek garatu zuen metodoa da, 1989an. Bristol (Ingalaterra) bullying-ean parte hartzen duten neska-mutilekin lan egiteko, No blame approach izeneko antzeko beste metodo bat garatu zuten Barbara Maines-ek eta George Robinson-ek, 1992an.

Pikas-en metodoa sortu den bullying-egoera bati aurre egiteko hirugarren mailako esku-hartze metodoa da, neska-mutil talde batek hainbat denboraz beste neska edo mutilen bat, edo gehiago, erasotzen dituen egoeretan lantzeko bereziki aproposa.

### Helburua

Metodoaren asmoa taldeko kideak, banan-banan, partaide diren egoera horretaz ohartzea da. Hartarako, kide bakoitzarekin banan-banako elkarrizketak egingo dira parte hartzen ari diren egoera horretan duten mehatxu-portaerari buruzko beldurrak eta erreparak ager ditzaten.

*Metodoaren azken aldean bilera bateratua egingo da; horretan, erasotzaileek eta biktimak liskar-jarrerak alde batera uzteko konpromisoa hartuko dute.*

### Adina

Metodoa ezartzeko adin egokia bederatzia eta hamasei urte bitartekoa da.

### Hasierako ikuspuntua

Hainbat hipotesitan oinarritzen da metodo honen ikuspuntua:

- Taldeak elementu psikologiko bateratzailea du jarduten duenean.
- Taldearen pentsamendu eta sentimendu horiek kide bakoitzak bere aldetik dituenak baino soilagoak dira.
- Taldeko kide bakoitzak, banaka, elementu psikologiko bateratzaile horri beldur dio.

Aipatu elementuak banakoa presionatzen du taldeko gainontzekoek egiten dutenarekin ados ager dadin. "Kutsapen soziala" (Olweus, 1998) deritzana gertatzen da. Errua edo ardua lausotu egiten da, eta, halaber, taldeak esaten duena egiten ez bada, biktima bihurtzeko beldurra izaten da.

### Etapak

Pikasek (1989) hiru etapa aipatzen ditu:

- 1. ETAPA: Egoera horretan dagoen taldeko kide bakoitzarekin banan-banako elkarrizketak (7-10 minutu pertsona bakoitzeko). Elkarrizketatutako lehenengoa taldearen liderra izango da, eta ondoren gainontzeko erasotzaileak. Azkena biktima izango da.
- 2. ETAPA: Jarraipena egiteko elkarrizketa neska-mutil bakoitzarekin (3 minutu inguru).
- 3. ETAPA: Talde osoarekin (ordu erdia).

Etapa batetik besterako tartea astebetekoa izango da. Eguneroko jardunean, ordea, eginkizun horretan eman den denbora irakasleek izango duten denboraren baitan dago. Nolanahi ere, aipatu tartea bi astetik beherakoak izango dira, beti.



*Sharp-ek eta Smith-ek (1994) esandakoari jarraituz, kontuan hartu beharreko hasierako alderdi batzuk aipatuko ditugu:*

## Aldez aurretiko ezarpen-baldintzak

...informazioari buruzkoak:

- Elkarrizketei heldu aurretik, bullying-gertakari buruzko albait informazio gehien biltzea komeni da. Gelako tutorearekin eta/edo bullyingaren berri izan edo halako egoerarik ikusi duten beste pertsona helduekin hitz egitea ezinbestekoa da.
- Erasotzaileei eta berauek babesten dituen taldeari buruzko albait informazio gehien lortzea komeni da: nor den liderra eta nortzuk jarraitzaileak, biktima nolakoa den, oldarkorra den ala ez.

...lokalaria buruzkoak:

- Elkarrizketak gela batean egingo dira, inolako etenik gabe.
- Eserlekuen antolamendua eta kokapena zaindu behar dira; altura berdineko aulkiak aukeratuko ditugu. Gelan leihorik baldin badago eta horretatik ikaslearen arreta beregana dezaketen pertsonak ikus badaitezke, ez eseri ikaslea haiei begira.

...metodoa aurrera eramango duen irakasleei buruzkoak:

- Metodo honen arrakasta elkarrizketez arduratuko den irakasleak proposatutako gidoia jarraitzearen edo ez jarraitzearen baitan dago.
- Irakasleak ez ditu erasotzaileak epaituko eta haien aurrean jarrera neutrala erakutsiko du. Ikaslearen aurrean bere burua haserre edo amorratuta sumatzen badu, ez da esku-hartzea garatzeko pertsona egokia.
- Esku-hartzeko hiru etapetan parte hartuko duen irakaslea berbera izango da.
- Pikasen Metodoaren gidoia erabiltzeko, prestakuntza beharrezkoa dela azpimarratu beharra dago. Zenbaitetan, irakasleek ez dituzte isiluneak pairatzen, eta galdea asko egiten dituzte. Ez da hala izan behar. Metodoak funtzionatuko badu, erabiltzaileak gidoian jasotakoa bete beharko du.

...koordinazioari buruzkoak:

- Lehenik, erasotzaileak elkarrizketatuko ditugu, banan-banan, eta ondoren biktima.
- Ikasleak elkarrizketara deitzaileekin, elkarrizketak egingo dituzten irakasleekin eta irakasle-tutorearen eta menpeko langileen arteko koordinazioa egon behar da.
- Elkarrizketa egiterakoan, gelan ordu horretan egongo den irakaslearen baimenarekin, erasotzaile bakoitza aldez aurretiko inolako abisurik gabe deitua izango da, eta atezainak lagunduko du metodoa gauzatuko duen irakaslearekin elkarrizketa izateko.

• Lehenengo elkarrizketak jarraian egin behar dira eta, ahal izanez gero, eskola-ordu bakar batean. Talde handiak direnean, behar beste denbora hartzea komeni izaten da (bi eskola-ordu jarraian).

• Lehenengo elkarrizketa txanda hau bukatu aurretik erasotzaileen taldeko kideek elkarrekin hitz egin ahal izatea saihestu beharra dago.

## 1. etapa: Lehenengo elkarrizketa Ikasle erasotzaileekin garatuko dugun gidoia:

• Lehenengo saioari heldu aurretik terapeuta edo irakaslea lasai egotea garrantzi handikoa da. Erasotzailea sartu denean, begiratu begietara eta esan esertzeko. Ondoren, terapeuta edo irakaslea gidoi honi jarraituko zaio:

Ondoren terapeutak edo irakasleak honako guioia jarraitu behar du:

1. «Zurekin hitz egin nahi dut... (biktimaren izena) arazoak dituela entzun dudalako». Beste aukera bat honako hau izan daiteke: «Zurekin hitz egin nahi dut... (biktimaren izena) –(r)en aurka aritu zarela entzun dudalako».
2. «Zer dakizu aipatu dizudan horretaz?»
3. «Ondo dago. Nahikoa hitz egin dugu horretaz guztiaz».
4. «Zer egin dezakegu? Zein da zure iradokizuna? Zure iritziz, zer egin dezakezu... –(r)i laguntzeko?»
5. «Hori ondo dago. Astebete barru berriro egongo gara elkarrekin. Orduan esango didazu nola moldatu zaren».

Elkarrizketa hau soluzioetara iristeko baliagarria izan behar da, egoera hobetzeko. Erasotzaileek beraiek, banan-banan, beren soluzioak ematea lortu nahi da, eta, askotan, halaxe gertatzen da. Lehenengo elkarrizketa hauen emaitza ikasleek beren jarrera nola alda dezaketen iradokitzea da.

Elkarrizketa bakoitzean soluzio desberdina lortuko dugu, esate baterako:

- ... "atsedenaldietan gure jolasetan sartu (biktima)"
- ... "besteei, (biktima) iraintzen dutenean, halakorik ez egiteko esan"
- ... "*beste lagun batzuekin elkartu eta biktima bakean utzi*"
- ... "*klaseren batean biktimarekin batera lan egin*"
- ... "*eskolatik aterata, (biktima) etxera lagundu*"
- ... "*hura (biktima) bakean utziko dut*"
- ... "*hura (biktima) defendatuko dut*"
- ... "*haren (biktimaren) laguna izango naiz*".

• Neska-mutilek egindako iradokizun horiek hurrengo asteetan egingo diren elkarrizketetan berraztertuko

dira. Lehen Hezkuntzako adinean daudenean, askotan ez dute egoera hobetzeko modurik topatzen. Bideratzaile lana areagotzea eska dezake egoera horrek.

- Elkarrizketa bukatuta, atezainak erasotzailea gelaraino lagunduko du eta beste bati dei egingo dio berarekin joan dadin. Erasotzaileak beti joango dira norbaitekin eta kontu handiz ibiliko gara haien arteko inolako komunikaziorik egon ez dadin, ez gelan ezta gelatik kanpo ere.
- Gidoi hau neska-mutil bakoitzarekin errepikatuko dugu txandaka.

## Zailtasunak

Batzuetan egoerak ez dira gertatzen guk nahi bezala, eta gidoietan aldaketak izaten dira. Zenbaitetan neska-mutilek ez dute hitz egin nahi izaten, edo negoziatu nahi izaten dute, edo bere laguntza inolaz ere eskaini nahi ez duenik ere izaten da. Elkarrizketa bide onetik ez doala antzematen badugu, eten eta besterik gabe hauxe esango dugu: "Ados. Gaurkoz bere horretan utziko dugu. Hurrengo... ikusiko dugu elkar". Nolanahi ere, oro har, haien laguntza jasoko dugu, baina, hartarako, elkarrizketa egingo duenak ez die neska-mutilei akusaziorik egingo eta gidoiari jasotakoari lotuko zaio.

## Aldaketak

- Ikasleak ez du lagundu nahi: isiltasuna gorde hark hitz egin arte. Minutu batzuk igarota ezer esan ez badu, besterik gabe honako hau esan dezakezu: "Badirudi gaur ez duzula hitz egiteko gogorik. Hobe izango duzu klasera joan". Orduan, batzuetan, hizketan hasten dira.
- Ez zaie soluziorik bururatzeko. Pentsatzeko astia eman behar zaie. Ez beldurrik izan isiluneei. Benetan soluziorik emateko gaitasunik ez badute, iradokizun bat eskain dakieke, baina, betiere, ikaslearen baime-narekin. "Zerbait bururatu zait, jakin nahi al duzu zer den?".
- Ikasleak eskaini duen soluzioa ezinezkoa edo zentzugabekoa baldin bada, ez atzera bota negatiboki. Galdetu: "hori gertatuko balitz, jazarpena amaituko litzateke?".
- Proposatuta duen soluzioa beste pertsona baten baitan baldin badago, ez da negoziatu behar. "Zuk zeure kabuz egin dezakezun zerbait eskatu dizut nik" esan behar zaio.
- "Nik horretan ez dut zerikusirik". Jazarpenean parte hartzen duenik ukatzen badu, atzera egingo dugu, eta, pausatuki, eraso gertatzen ari den testuinguru sozialari buruz hitz egingo dugu eta biktimaren egoerara hurbilduko gara. Parte-hartzeari buruzko onarpenik txikiena egiten badu, erabakitako gidoiari helduko diogu berriro ere.
- "Berak (biktimak) egina zidan niri hori lehenagotik". Bullying-portaera justifikatu nahian, biktimaren jarre-

ra probokatzailea behin eta berriro aipatzen dutenean, haien iritziz, biktima, nolabait ere, "horren bila dabil". Erasotzailearen biktimarekiko haserrea, amorrua edo etsipena ez da errefusatu behar. Erasotzailearen sentimenduak onartu behar dira, baina, hala ere, biktima eskolan une txarra igarotzen ari dela esan behar zaio.

1. ETAPA: Lehenengo elkarrizketa. Biktimekin garatuko dugun gidoia.

- Pikasek biktima pasiboa eta biktima probokatzailea bereizten ditu.

## Biktima pasiboa denean:

Elkarrizketa egingo duenaren eginkizuna biktima animatzea, eta hari bere sostengua eta aholkua ematea da. Lehenengo eta behin, biktimak bere egonezina eta zer gertatzen zaion adieraz dezan saiatuko gara.

Biktima askok gustura hitz egiten dute beren egoeraz. Beharbada, horixe izango da horretaz hitz egiten duten lehenengo aldia. Ondoren, ikasleari berak ere bere egoera hobetzeko gauza asko egin ditzakeela jakinaraziko diogu, eraso saihets dezaketen zenbait jarrera pertsonal alde batera utzita. Komeni izaten da elkarrizketa hauei asertibitate portaerak lantzeko saioak gehitzea.

## Biktima probokatzailea denean:

Bere portaera ere aldatu behar duela kontzientziatzen saiatuz lagunduko diogu. Elkarrizketa egingo duenak biktimaren konfiantza bereganatzeko, guztien gogoko izateko bide okerretik jo duela ikusarazteko eta hori lortzeko modu onargariagoak badaudela adierazteko adinako nortasun sendoa eduki behar du. Kontuan hartu biktima probokatzaileak, maiz, talde erasotzaileko partaide bihurtu nahi izaten duela.

## 2. ETAPA: Jarraipeneko elkarrizketak

Hurrengo topaketak ikasle bakoitzak lehenengo topaketetan hartutako erabakiak onartzen dituenegonean egingo da. Banakako topaketak dira, baina lehenengoak baino laburragoak. Astebete geroago egingo dira eta lehenengoan izan ziren ordena eta forma berarekin.

Nolanahi ere, ikasleek ez dute beti betetzen esaten duten hori. Bullyingak aurrera segitzen badu, banakako lanarekin jarraituko dugu egoerari soluzio bat ematea onartzen duten arte.

Egoerak hobera egin badu, bullying-egoera horretan tartean egon diren guztiekin bilera bateratua egingo dugu, betiere biktima horretarako prest baldin badago.

## 3. ETAPA: Talde-topaketa

Eta hau ezinbestekoa izango da beti, baina, bereziki, biktima probokatzailea denean. Topaketa horrek aurrerantzean bullyingarekiko jarrera aldaketa denboran bere

horretan iraunarazteko balioa izan behar du, batez ere biktima probokatzaileraren denean.

- Lehenengo eta behin, bilera bat egingo dugu talde erasotzailearekin. Aste horretan biktimarekin zernolako jarrera egon den galdetuko diegu. Esan beharreko guztia entzungo diegu zailtasunak ager ditzaten. Ondoren egin daitekeenaz galdegingo diegu. Bullyingari soluzioa emango bazaio, arazoa gainduta dagoela onartu beharko dute, eta, beraz, hori egiaztatzeko biktimarekin elkartu beharra dago. Bilera horretan biktimaren alderdi positiboak agertzea eta talde erasotzailearen jarrera aldaketa ageriko izatea ezinbestekoa izango da.
- Erasotzaileei biktimarekin bilera egin behar dela esango diegu. Terapeuta edo irakasleak plan bat proposatuko du. Ondoren biktimari dei egingo diogu. Taldearen erditik pasa beharra izan ez dezan, bere aukira zuzenean joan ahal izateko aukera eman behar diogu. Hoberena irakaslearen alboan esertzea izango da.
- Erasotzaileetako bakoitzak, txandaka, biktimari buruz duen benetako iritzia adieraziko du. Biktimak oraingoz entzun besterik ez du egingo.
- Segidan irakasleak parte hartuko du, eta biktimari esatekorik zer duen galdetuko dio (positiboa baldin bada, baliteke amaiera egokia izatea).
- Ondoren parte-hartzaileetako bakoitzak bere zailtasunak eta gaitzespenak adierazteko askatasuna izango du. Halakorik egiten badute, horrek prozesua luzatuko du.

- Irakaslearen eginkizuna komunikazioa erraztea, soluzio positiboak ematea eta hizketa-txandak moderatzea da.

Egoerak hobera egin izana txalotuko dugu, eta, halaber, aldaketa horrek iraun dezan zer egingo dugun aipatuko dugu.

- Bi aldeek azken adiskidetzea lortuta, honako galdera hau egingo diegu: "Zer egingo dugu norbaitek emandako hitza betetzen ez badu?". Maiz, taldeak berak proposatzen du gaitzestea edo zigorra ezartzea. Irakasleak besteen hutsegiteez jabetzera eta horiek kontrolatzera bultzatuko ditugu. Orobat, bullyingak aurrera eginez gero, bestelako neurriak hartu beharko lirakeela ikusarazi behar diegu; honenbestez, argi eta garbi geratu behar da inork ez duela egoera horretara iritsi nahi. Portaera horiek aztertzeke eta lehenera ez iristeko, plan bat iradoki dezakegu.
- Bukatzeko, hainbat ideia azpimarratuko ditugu: adiskideak izateko inolako obligaziorik gabe tolerantzak izaten, besteen akatsak onartzen eta elkarrekin bizitzeko ikasi beharra daukagu.
- Gogoan hartu jarrera eta portaera aldaketak oso motelak izaten direla. Bestalde, elkarrizketez arduratuko den pertsona terapeuta, orientatzailea edo teknika hauetan ondo trebatuta egongo den irakaslea izan behar da, taldeak onartzen duena. Halaber, taldearen gainontzeko irakasleekin koordinatuta egon behar da. Irakasleek emaitza hobek lortzen eta ikastetxearen hezkuntza-proiektua garatzen lagunduko dute, curriculum-lanarekin ideia hauek bultzatuz.



# Bibliografia





## Gaztelaniazko oinarriko bibliografia

- Avilés Martínez, J. M. (1999). *CIMEI. Cuestionario sobre intimidación y maltrato entre iguales*. Valladolid: Grafolid.
- Avilés Martínez, J. M. (2000). El bullying en la ESO. En *Escuela Hoy*, 46, 20-22.
- Avilés Martínez, J. M. (2001). La intimidación y el maltrato en los centros escolares (bullying). En *Lan Osasuna*, 2, 13-24. Bilbao: STEE-EILAS.
- Avilés Martínez, J. M. (2002): *La intimidación y el maltrato entre iguales en la ESO*. Tesis doctoral no publicada. Universidad de Valladolid.
- Avilés Martínez, J. M. (2002). *PRECONCIMEI. Cuestionario sobre intimidación y maltrato entre iguales*. Valladolid: JMAM.
- Cerezo Ramírez, F. (1997). *Conductas agresivas en la edad escolar*. Madrid: Pirámide.
- Carbonell, J.L. (Ed.). (1999). *Programa para el desarrollo de la convivencia y la prevención de la violencia escolar. Materiales de apoyo al programa Convivir es Vivir*. (Vols. 1-4). Madrid: Dirección Provincial del Ministerio de Educación y Cultura.
- Defensor del pueblo (1999). Informe del defensor del pueblo sobre violencia escolar. <http://www.defensor-delpueblo.es/> (08 diciembre de 1999).
- Fernández García, I. et al. (1996). Manifestaciones de la violencia en la escuela: el clima escolar. En *Educadores, revista de renovación pedagógica*, 180, 35-54.
- Funk, W. (1997). Violencia escolar en Alemania. Estado del Arte. En *Revista de Educación*, 313, 53-78.
- García Orza, J. (1995). Violencia interpersonal en la escuela. El fenómeno del matonismo. En *Boletín de Psicología*, 49, 87-103.
- Mooij, T. (1997). Por la seguridad en la escuela. En *Revista de Educación*, 313, 29-52.
- Mora-Merchán, J. A. Y Ortega, R. (1995). Intimidadores y víctimas: Un problema de maltrato entre iguales. Comunicación presentada en el *IV Congreso Estatal sobre Infancia Maltratada*, Sevilla. (pp. 271-275).

- Olweus, D. (1998). *Conductas de acoso y amenaza entre escolares*. Madrid: Morata.
- Ortega, R. (1994). Violencia interpersonal en los centros educativos de enseñanza secundaria. Un estudio sobre el maltrato e intimidación entre compañeros. En *Revista de Educación*, 304, 253-280.
- Ortega, R. (1997). El proyecto Sevilla anti violencia escolar. Un modelo de intervención preventiva contra los malos tratos entre iguales. En *Revista de Educación*, 313, 143-161.
- Ortega, R. (1998). *La convivencia escolar: qué es y cómo abordarla*. Sevilla: Consejería de Educación y Ciencia. Junta de Andalucía.
- Ortega, R. y Mora-Merchán, J. A. (2000). Violencia escolar: Mito o Realidad. Sevilla: Mergablum, Edición y Comunicación.
- Torrego, J.C. (Ed.) (2000). *Mediación de conflictos en instituciones educativas. Manual para la formación de mediadores*. Narcea: Madrid.

## Ingelesezko oinarriko bibliografia

- Arora, T. (1991). The use of victim support groups. En *P.D. Smith y D.Thompson (eds), Practical approaches to bullying*. London: David Fulton.
- Bentley, K.M. Y Li, A.K.F. (1995). Bully and victim problems in elementary schools and students' beliefs about aggression. En *Canadian Journal of school psychology*, 11, 153-165.
- Besag, V. (1989). *Bullies and Victims in School*. London: Open University Press.
- Byrne, B. (1994). Bullies and victims in a school setting with reference to some Dublin schools. En *Irish Journal of Psychology*, 15 (4), 574-586.
- Cowie, H. y Sharp, S. (1996). *Peer counseling schools*. London: David Fulton Publishers.
- Department for Education (1994). *Bullying, don't suffer in silence. An anti bullying pack for schools*. London: HMSO.

- Elliott, M. (1991). Bully "courts". En M. Elliott (ed), *Bullying: A practical guide to coping for schools*. Harlow: Longman.
- Farrington, D.P. (1993). Understanding and Preventing Bullying. Crime and justice. En *Review of Research*, 17. Chicago: The university of Chicago Press.
- Fonzi, A. *et al.*, (1999). The nature of school bullying. En P.K. Smith, Y. Morita, J. Junger-Tas, D. Olweus, R. Catalano y P. Slee (Eds.), *The nature of school bullying*, (pp. 174-187). London: Routledge.
- Hoover, J.H., Oliver, R. Y Hazler, R.J. (1992). Bullying: perceptions of adolescent victims in the Midwestern USA. En *School Psychology International*, 13, 5-16.
- Johnson, D. W. y Johnson, R. T. (1989). *Cooperation and competition*. Edina, MN: Interaction Book Company.
- Maines, B. y Robinson, G. (1992). *Michael's story: The "no-blame approach"*. Lame Duck Publishing, 10 south Terrace, Redlands, Bristol B566TG.
- Mellor, A. (1990). Bullying in Scottish secondary schools. En *Spotlights 23*. Edinburgh: SCORE.
- Mellor, A. (1993). *Bullying and how to fight it*. Edinburgh: SCORE.
- Monbusho [Ministry of Education] (1994). *Seito Shidojo no shomondai no Genjo to Monbusho no Shisaku ni tsuie*. [The present situation of issues concerning student tutelage and measures by the Ministry of Education]. Tokyo: Ministry of Education.
- Olweus, D. (1991). Bullying among school-boys. En N. Canywell (Ed.), *Children and violence*. Stockolm. Akademitlitteratur.
- Olweus, D. (1993). *Bullying at school. What we know and what we can do*. Oxford: Blackwell.
- Olweus, D. (1999). Sweden. En P.K. Smith, Y. Morita, J. Junger-Tas, D. Olweus, R. Catalano y P. Slee (Eds.), *The nature of school bullying*, (pp. 7-27). London: Routledge.
- O'Moore, A. M., Kirkham, C. y Smith, M. (1997). Bullying behaviour in Irish schools: a nation-wide study. En *Iris Journal of Psychology 18*, 141-169.
- Perske, R. (1988). *Circle of friends*. Londres: Abingdon Press.
- Pikas, A. (1989). The common concern method for the treatment of mobbing. En Roland, E. y Munthe, E. (Eds.), *Bullying: An international perspective*. (pp. 91-105). London: David Fulton.
- Rigby, K. (1996). *Bullying in schools. And what to do about it*. London: Jessica Kingsley.
- Sharp, S. y Thompson, D. (1994). How to establish a whole-school anti-bullying policy. En S. Sharp y P. Smith (Eds.) *Tackling bullying in your school*. (pp. 23-40). London: Routledge
- Smith, P. K. y Sharpe, S. (1994). *School bullying. Insights and perspectives*. London: Routeledge.
- Smith, P. K. y Sharpe, S. (1994). *Tackling bullying in your school*. London: Routeledge.
- Smith, P., Morita, Y., Junger-Tas, D. Olweus, R. Catalano y P. Slee (1999). *The nature of school bullying. A Cross national perspective*. London: Routledge.
- Sullivan, K. (2001). *The anti-bullying handbook*. London: Oxford University Press.
- Taki, M. (1992). The empirical study on the occurrence of ljime behavior. En *Journal of Educational Sociology*, 50.
- Whitney, I. y Smith, P. K. (1993). A survey of the nature and extent of bullying in junior/middle and secondary. *Educational Research*, 35, 3-25.